

artelka

**1939-1945:
ALDERDI
KOMUNISTAK
GERRAREN
AURREAN**



— **S**obietar Batasunak, Stalin buru zuela, “Aberriaren Gerra Handi” izendatu zuen nazismoaren eta abangoardia kapitalistaren kontrako gerra. Alabaina, ez zen aberri nazional bat Mendebaldeko aberri nazionalen kontra, baizik eta proletariotzaren eta komunismoaren gerra potentzia kapitalista guztien kontra, basakeria naziak potentzialki ordezkatzeko zituenak. Aberri sozialistak ez zuen zerikusirik aberri kapitalistarekin; haren subiranotasunaren printzipioa ez zetzan nazioa klase kapitalistaren boterearen nukleo gisa defendatzean, baizik eta nazioartean antolaturiko proletariotzaren defentsan. Komunismoak gizarte kapitalistaren kontra egindako gerra da eta izango da Aberriaren Gerra Handia. Proletalgoaren aberria komunismoa da; lehen, orain eta beti

6

EDITORIALA

Arteka

**Aberriaren Gerra Handia
nazionalismoaren kontra**

10

KOLABORAZIOA

Markel Samaniego

**Frantziako Alderdi
Komunista: sobieten
aukeraren eta munstro
hitleriarraren artea**

24

KOLABORAZIOA

Telmo Zulaika

**PCI berria: arrisku
handiko hegaldi bat**

38

KOLABORAZIOA

Jon Larrabide

**Alemanien oposizioa
gerraren aurrean**

52

KOLABORAZIOA

Aimar Nuñez

**Aberriaren Gerra
Handiaren garapen
politikoa Sobietar
Batasuneko Alderdi
Komunistaren barrenetik**

Aberriaren Gerra Handia nazionalismoaren kontra

Editoriala

1848an, gerora Lurraren luze-zabalean errealtate ukigarri izango zena aurrerratu zuten *Manifestu Komunistan* Marxek eta Engelsek: langileek ez dute aberririk. Hori esan zuten unean, sortzen ari ziren iraultza burgesak, eta, aldi berean, borroka politikoaren, borroka iraultzailearen eta mugimendu demokratiko-nazionalen lehenengo lerrora egin zuten jauzi proletariotzak eta masa handiek. *Manifestuaren* egileek ez zuten une politiko guztiz determinanteetan nahasmena sor zezaketen esaldi anbiguo eta ilunik esaten, eta, halaber, zuzen zebiltzan bizitzen ari ziren une hori zein garrantzitsua den ulertzen. Baieztapen horrek, beraz, ez du biderik ematen esanahi bikoitzetarako.

Nahiz eta XIX. mendean zenbait mugimendu nazionalista egia hori –“langileek ez dute aberririk”– erlatibizatzen saiatu ziren argudiatuz proletariotzak ez duela aberririk ez duelako botererik edo lapurtu egin diotelako izan zezakeena, errealtateak gero eta gehiago erakusten du proletariotza ez dela nazioa eta ezin duela izan, nazioaz kanpoko agente elementu bateratzaille gisa, haren existentziaren froga gisa balio duen agentea baita leku guztietan: arrisku bat da, erruduna, indar nazional

1848an, gerora Lurraren luze-zabalean errealtate ukigarri izango zena aurrerratu zuten Manifestu Komunistan Marxek eta Engelsek: langileek ez dute aberririk

guztiak haren kontra bateratzeko aukera ematen duena. Nazionalistek proletariotza baztertzen dute, kanporatu, nazioaren etsai gisa identifikatzen dute, eta bazterketa-ekintza hori bihurtzen da nazioaren sorrera-une. Horrela, proletariotzaren nazio-integrazioa, proletariotza nazio bihurtzea izan litzateke nazioaren hil aurreko azken ekintza, haren heriotza-agiria.

Nazio-eztanda handiak eta gorakada nazionalista erreakzionarioa kanpaina antiproletario eta antikomunista erasokor batekin datoz, zeinak, proletariotza miseria sozial erabatekoenean hondoratu ez ezik, haren gaitasun politikoak eta emantzipazio-aukerak deuseztatu nahi baititu. Egungo erreakzio faxista batuta dago, oraingoan ere, etsai komunaren aurka, proletariotzaren aurka, eta, horretarako, hegali-lik zaugarrienari egiten dio eraso: proletariotza migratzaileari. Gainera, ordura arte etsaituta zeuden joera nazionalistak bateratzen ditu nazio jakin baten baitan, eta –are paradoxikoagoa– ordura arte etsaitutako nazioak adiskidetzen ditu. Denek egiten dute bat nazioa salbatzeko zeregin handian, hau da, klase ertainaren espazio pribilegiatua eta politika antiproletarioaren nukleoa salbatzeko zereginean –burgesia nazionalaren esku dagoen kapital metaketari esker da posible espazio hori–, nahiz eta horrek berekin ekarri ordura arte beren nazioa izana zena sakrifikatu beharra, baita hura gerrara eta suntsiketara eramanez ere.

1939an egin zuten moduan, gaur, ere, potentzia kapitalista handiak elkar hartuta daude beren esplotazio-munduaren deskonponsizioari aurre egiteko. Nazioa botere-bloke egonkor gisa berrezartzea da kapitalistek erdigune inperialistan duten zeregin komuna, Mendebaldeko gizartearen nukleoko proletarioen masifikazioaren problemari aurre egiteko –hau da, proletarizazio-prozesu intentsibo eta esentsiboari–. Kapitalisten zeregin komun hori, Kapitalaren agente-botere autoritario eta bateratuaren instituzioa bezalaxe, kapitalisten arteko Mundu Gerra bat izatearen arriskuaren pean eta haren bidez garatzen da, jakina.

Halaber, proletarizazio-prozesua ezkutaturik ageri da, proletario migratzaileak erdigune inperialistara bidaltzeko inportazio gisa. Alabaina, interpretazio hori faltsua da; izan ere, Mendebaldeko gizartea krisian sartu eta barrutik deskonposatzen denetik aurrera bakarrik bihurtzen da gatazka-gune. Horrela, proletarizazio-prozesuak politika antiproletario, arrazista eta faxisten bidez erreakzionatzen du. Prozesu horrek ematen dio bide kapitalisten batasunari gatazkaren erdian. Izan ere, kanpoko arriskua, hau da, proletarizazioak sistema suntitzearen arriskua arraza-arrisku bilakatzeak, subiranotasun-problema bilakatzeak alegia, aukera ematen du nazioaren estatua proletariotzaren bazterketa sozialeko eta menderakuntzako elementu gisa berritzeko. Horrek, gainera, ez du galarazten nazio-subiranotasuneko prozesuak beste nazio batzuen subiranotasuna urratuz egitea bidea.

Nazio-eztanda handiak eta gorakada nazionalista erreakzionarioa kanpaina antiproletario eta antikomunista erasokor batekin datoz, zeinak, proletariotza miseria sozial erabatekoenean hondoratu ez ezik, haren gaitasun politikoak eta emantzipazio-aukerak deuseztatu nahi baititu

***Europako zenbait herrialdetan,
masakratu egin zituzten Alderdi
Komunistak, haietako asko
plan judutar baten parte izateaz
akusatuta. Arrazoi horiexek
erabili zituen Alemania naziak ere
Sobietar Batasunaren oposizioa
justifikatu eta inbaditzeko.
Arrazoi horien bidez ezkutatu
egin nahi zuten Mendebaldeko
inperialismoaren krisi ekonomikoa,
klase-borroka bere horretan,
eta hura Alderdi Komunistek
gidaturiko krisi iraultzaile
bihur zitekeelako arriskua***

Hori aski ezaguna eta antzemateko modukoa da Bigarren Mundu Gerran, 1939an hasia. Hartan, Alemaniako gizartearen baitan etnia- eta arraza-arazo bihurtu zen mundu kapitalista osoaren krisia. Horrek, subiranotasun nazionala berrezartzeko, abangoardia kapitalista jarri zuen boterean: Alemaniaren subiranotasuna ez ezik, baita arraza zuriaren, erdigune inperialistaren eta munduko kapitalismoaren subiranotasuna ere. Nazio-subiranotasunaren printzipioak gatazkaren eta gerraren bidez egin zuen bidea, eta baita beste herrialde batzuk inbadituz eta bere nazio-subiranotasuna apurtuz ere.

Orduan ere, errudun bat artikulatzeak eman zuen aukera proletariotzaren gaitasun politikoak munduko eskalan suntsitzeko. Judutarren kontrako gerrak nazismoaren aginte militarista eta diktatorialaren pean batu zuen mundu kapitalista komunismoaren mehatxuaren kontra. Europako zenbait herrialdetan, masakratu egin zituzten Alderdi Komunistak, haietako asko plan judutar baten parte izateaz akusatuta. Arrazoi horiexek erabili zituen Alemania naziak ere Sobietar Batasunaren oposizioa justifikatu eta inbaditzeko. Arrazoi horien bidez ezkutatu egin nahi zuten Mendebaldeko inperialismoaren krisi ekonomikoa, klase-borroka bere horretan, eta hura Alderdi Komunistek gidaturiko krisi iraultzaile bihur zitekeelako arriskua. Izan ere, krisi hori gaingintzeko, aginte kapitalistaren autoritate-batasuna behar zen, komunistek eta judutarrek osatzen zuten kanpo figura horren oposizioan artikulatua.

Era berean, herrialde kapitalistek nazismoaren kontrako erresistentziarako deia egin zuten subiranotasun nazionalaren izenean, eta, horrela, naziak defendatu eta praktikatutako subiranotasun printzipioa indartu zuten.

Sobietar Batasunak, Stalin buru zuela, “Aberriaren Gerra Handi” izendatu zuen nazismoaren eta abangoardia kapitalistaren kontrako gerra. Alabaina, ez zen aberri nazional bat Mendebaldeko aberri nazionalen kontra, baizik eta proletariotzaren eta komunismoaren gerra potentzia kapitalista guztien kontra, basakeria naziak potentzialki ordezkatzzen zituenak. Aberri sozialistak ez zuen zerikusirik aberri kapitalistarekin; haren subiranotasunaren printzipioa ez zetzan nazioa klase kapitalistaren boterearen nukleo gisa defendatzean, baizik eta nazioartean antolaturiko proletariotzaren defentsan. Komunismoak gizarte kapitalistaren kontra egindako gerra da eta izango da Aberriaren Gerra Handia. Proletalgoaren aberria komunismoa da; lehen, orain eta beti. ●

FRANTZIAKO ALDERDI KOMUNISTA

SOBIETEN AUKERAREN ETA MUNSTRO HITLERIARRAREN ARTEAN

Testua — **Markel Samaniego**

Irudia — **Amaiur Ruiz, Irune Juangarcia**

& Ekhiotz Arbe



A ski ezaguna da Frantziako Alderdi Komunistak Bigarren Mundu Gerran izan zuen rola. Nazien aurkako erresistentzian jardun heroikoa izan zuen borrokaren dimentsio guztietan eta, Molotov-Ribbentrop paktuaren ondorioz izen ona galdu bazuen ere (izan ere, ez zuen Erresistentzian parte hartu naziak Frantzia inbaditu ondorenera arte), 1941etik aurrera berehala berreskuratu zuen izen on hori, koadro komunisten determinazioa eta inplikazioa erabatekoa izan baitziren. Horren isla da Bigarren Mundu Gerra osteko masa alderdi komunista handienetako bat izan zela Europan, bai eta Frantziako alderdirik bozkatuena ere.

Hala ere, badaude Frantziako Alderdi Komunista protagonista izan zuten gertakari batzuk, ezagunak ez izan arren, Bigarren Mundu Gerraren eta iraultza komunistaren patua baldintzatu zutenak: hain zuzen ere, 1936ko maiatzean piztu zen Frantziako eztanda proletarioaz ari gara. Langileen oldarraldiak fabriken okupazio masiboa ekarri zuen, patronalarekiko jarrera erasokorra, alderdi eta sindikatu guztietatik kanpo zegoen dinamika autonomoa, eta mugimendu ekonomiko hutsa izatetik harago lurralde osora zabaltzeko perspektibarekin batera proletariotza iraultzailearen botere organoak (sobietak) eratzeko aukera. Ikusiko dugun moduan, Frantziako Alderdi Komunistaren eskuetan erori zen mugimendu horren noranzkoa erabakitzekeo parada.

I kuspegi komunistatik begiratuta, Frantziako Alderdi Komunistaren historia guztitik dugu zer ikasia; baina uste dut 1936ko gertakariak, izan zuten konplexutasunagatik eta hainbat eta hainbat elementuren konfluentziagatik, zeresan handia dutela eta inspirazio-iturri izan daitezkeela gaurko komunistontzat, koiuntura taktikoak eta printzipio estrategikoen arteko koherentziak inposatzen dituen ebazpen posibleek askotan sakrifizio handiak eskatzen dituztelako. Zentzu horretan hausnarketa egiteko intentzioa du testu honek.

Edukiari dagokionez: Frantziako Alderdi Komunista ezin uler daiteke Komintern (Internazional Komunista) gabe, Alderdia azken horren nazio-destakamentua izan baitzen. Ez gara sartuko Frantziako Alderdi Komunistaren eta Internazional Komunistaren arteko erlazioaren eboluzioa eta nondik-norakoak aztertzeraz, nahiz eta pisuzko faktore bat izan ziren ezbairik gabe. Bada, Internazional Komunistak testuinguru historikoaz egiten duen analisiari erreparatuko diogu, ulertzeko zer zen Herri Frontearen taktika eta taktika horrek izan zezakeen zentzua iraultza sozialistaren garapenaren ikuspegitik. Horrekin batera, 1934-36 bitarteko Frantzian lur hartuko dugu eta, azkenik, 1936ko gertakarietan Frantziako Alderdi Komunistak izan zuen posizioa problematizatuko dugu.

KOMINTERNAREN VII. BILTZARRA, 1935

Internazional Komunistaren VII. biltzarraren arabera, kapitalismoa fase agonikoan sartu zen 1929an, heriotzarako joeran; gainbehera horrek langileriaren bizi baldintzen okertzea zekarren. Ondorioz, langileria langile mugimendu indartsuetan gorputz hartzen hasia zen: Austrian, Dolfuss-en diktaduraren aurkako langile miliziak; Londresen, gosearen martxak egin ziren langabetuek, sozialistek eta alderdi komunistak bultzatuta; Parisen liga faxisten aurkako borroka sozialisten eta komunisten eskutik; Asturiasko iraultza komunista, sozialisten eta anarkisten ekintza-batasunarekin... Horri SESBen ereduak mundu osoko langilerian eta herri zapalduetan zuen pisu sinbolikoa gehitu behar zaio.

Era berean, Hitlerren agintaldiak zera iradokitzen zuen: Mendebaldeko oligarkiaren fakzio batzuek beharrezko ikusten zuten eredu politiko autoritarioago bat, klase ertainen bizi maila berreskuratzeko gai izango zena, bai eta komunismoaren mehatxuaren kontra borrokatzeko bermea ere. Aldi berean, agorturik aurkitzen zen plusbalioa erauzteko ziklo berri bati ateak irekiko zizkion gobernantza-eredua izan nahi zuen. Oro har, autoritarismoranzko joera gorakorra Mendebaldeko estatu guztietan hauteman zen, forma batean edo bestean. Esaterako, AEBn Roosevelt-en Gobernuak hartu zituen neurriak hori iradokitzen zuten. (“faxismoari ateak irekitzen zizkion”, esaterako, botere exekutiboan autoritate gehiegi kontzentratzeak, beste hainbat neurriarekin batera). Horrekin batera, alderdi faxista handiak ugaritu egin ziren Europako lurralde guztietan.

Testuinguru horretan, Polonia, Italia eta Japoniarekin batera, gerrarako joera hartu zuen, halaber, Alemaniak. Hain zuzen ere, joera hori SESBen aurkako posizio gero eta gogorragoetan gorpuztu zen bereziki (ikus anti-Komintern paktua 1936an, 1934ko Polonia-Alemania paktua, esku-hartze nazi eta faxista Espainiako Gerra Zibilean, Japoniaren inbasioa Txinan, Italiaren inbasioa Etiopian...). SESBek joera hori jada 1929an aurreikusi zuen eta –Errusiako gerra zibileko esku hartze inperialisten esperientzia bizkarrean izanik– iragarri zuen mundu gerra bat pizteko aukera nabarmentzen ari zela, nazioarteko oligarkiak interesak zituela SESB suntsitzeko eta, horretarako, loraldi betean zegoen garapen militar eta industrialaz baliatuko zela. Gainera, SESB kolektibizazio kanpaina betean zegoen momentu hartan, bai eta herrialdea industrializatu eta demokratizatzekeo planetan ere. Horrekin batera, ondorengo analisia egiten zuten bloke inperialistaren arteko kontraesanei zegokienez: arriskua zegoen tentsio interinperialistak areagotzeko, aintzat harturik Lehen Mundu Gerraren osteko nazioarteko ordena ekonomikoan posizio pribilegiatua zuten potentzia inperialistei, hau da, Frantziari, Erresuma Batuari, Herbehereei, AEBri eta Belgikari, besteak beste, ez zitzaiea guda bat komeni, periferia kapitalistan zituzten interes kolonialengatik, bereziki. Ondorioz, Internazional Komunista SESBen aurka joan zitekeen batasun inperialista arrakalatzen saiatu zen, bakearen aldeko hautu politikoa eginez nazioartean.

Nazioarteko iraultza proletarioari dagokionez, zera esan behar da: 1923-25 artean Mendebaldeko herrialdeetan iraultzarako aukerak galdu ziren heinean, aukera-galera horrek isla izan zuen SESBen noranzkoan. Horren ondorioz, “sozialismoaren eraikuntza herrialde bakarrean” deitu zitzaion horren gaineko eztabaida piztu zen, Stalin, Trosky, Kamenev eta Zinoviev izan zirelarik eztabaida horren protagonista nagusienak. Hain zuzen ere, eztabaida horrek ezarri zituen SESBen politikaren gidalerroak. Garai hartan, loraldi ekonomikoa hasi zen Mendebaldean (aipatutako garapen industrial eta militarra horren isla) eta, iraultza-saiakeren porrotekin batera, ofentsiba sozialistaren fasetik defentsa-posizioetara itzuli ziren proletariotza iraultzailearen alderdi, antolakunde eta sindikatuak. Testuinguru horrek baldintzatu zuen, beraz, SESBen sorturiko eztabaida, ebatzi beharreko arazo gisara planteatuz ea posible ote zen SESBen aurrerapausoak ematea sozialismoaren eraikuntza ekonomikoan eta proletariotzaren diktaduran aukera iraultzaileek Europan berriro lur-hartu arte. Artikulu honetan ez dugu aztertuko eztabaida hartan posizio bakoitzak zer defendatzen zuen, ez eta eztabaida estrategiko hori “sozialismoaren eraikuntza herrialde bakarrean bai edo ez” dikotomia horretara mugatu behar den, dikotomia hori sinplistegia delako, dudarik gabe, eta hori ez delako artikulu honen objektua, baina garbi dagoena zera da: 1929tik aurrera, aukera iraultzaileak Europara itzuli ziren eta Kominternak errealtate hori irakurtzen jakin zuen. Izan ere, aditzera eman zuen beharrezkoa zela fronte antifaxista eta antikapitalista handiak sortzea, langile masen eta herri sektoreen

1929tik aurrera, aukera iraultzaileak Europara itzuli ziren eta Kominternak errealtate hori irakurtzen jakin zuen. Izan ere, aditzera eman zuen beharrezkoa zela fronte antifaxista eta antikapitalista handiak sortzea, langile masen eta herri sektoreen kontzientzia oraindik ere ez baitzen iraultza sozialistaren aldekoa eta, beraz, Herri Fronteak, “langile fronte bakarraren” taktika baliatuta burgesia inperialistaren barne kontraesanak hauspotu behar zituela

kontzientzia oraindik ere ez baitzen iraultza sozialistaren aldekoa eta, beraz, Herri Fronteak, “langile fronte bakarraren” taktika baliatuta burgesia inperialistaren barne kontraesanak hauspotu behar zituela, jakina, Kominternak ikusi zuelako, azken instantzian, burgesia inperialistaren bloke bakezaleak (Erresuma Batua, Frantzia, AEB...) Hitlerrekin batzeko joera izango zuela, eta hura SESBen aurka oldartzera bultzatuko zutela. Bada, Kominternak bete-betean asmatu zuen, posizio taktiko horretan faxismoaren eta kapitalismoaren lotura sintetizatu zuelako eta posizio hori muturreraino eramateko prestutasuna hartu zuelako.

Kominternaren taktikak, termino horietan, bazuen bere izateko arrazoia iraultza sozialistaren ikuspegitik; izan ere, masen erradikalizaziorako bide-orri bat planteatzen zuen. Ez da ahanzi behar garai hartan Internazionale Sozialistak oraindik pi-su handia zuela langile masetan, eta burgesiaren ezkerreko alderdiek klase ertaineko sektore aurrerakoiak ordezkatzten zituztela, bai eta nekazariak ere. Frantziak, herrialde industrializatua izanagatik, nekazari kopuru handia zuen eta, aintzat hartuz sobieten boterea ezartzeko eredu boltxebikea hegemonikoa zela, ulergarria da kezka taktiko hori izatea. Azkenik, ofentsiba iraultzailera pasatzeko aukerak ere aurreikusten zituen taktika horrek, behin kontraesan guztiak agortu eta langile zein herri-tar masen kontzientziak horri heltzeko baldintzak sortzen zituenean. Horretarako, alderdi komunistek prest egon behar zuten herrialde guztietan, eta beharrezko instituzioak artikulatu beren baitan, prozesua muturreraino eramaten laguntzeko.

Hitlerren mehatxuak areagotzen ari ziren, bereziki Alemaniako Alderdi Komunista suntsitu ondoren; langileriaren hainbat destakamentu antolatuk ekintza-batasunerako beharra aldarrikatu zuten

Beraz, ondorengo terminoetan planteatu zuten Dimitrov, Togliatti eta enparauiek nazioarteko iraultza sozialistarako bide-orri taktiko baten aukera: Herri Fronte bat faxismoaren eta kapitalismoaren aurka, eta, fronte horren barneko nukleo indartsu gisara, langile fronte bakarra (sozialisten eta komunisten aliantzan oinarritua), betiere alderdi komunisten gidaritzapean. Taktika horrek igoaldi belikoaren aurkako bide-orria zeukan, bakearen aldekoa. SESBen kanpo politikak, noski, Kominternaren taktikarekin bat egiten zuen.

Kominternak berak ere aurreikusten zituen hartu berri zuen posizio taktikoaren arriskuak. Lehenbizikoa zen burgesia nazionalek hartzea Herri Fronte horren gidaritzza, eta prozesu iraultzaileak oztopatzea. Horrek SESBen aliantza-politika Hitlerren aurkako estatu burgesekin egitea ekarriko zuen. Bigarrena zen Herri Frontearen gidaritzza komunistek eramatea muturreraino, eta estatu sozialista aldarrikatzea matxinada iraultzaile baten bidez. SESBen defentsa estatu sozialista berriekin antolatuko zen. Hirugarrena zen Herri Frontearen gidaritzza komunistek izateak fakzio burges guztien izua eragitea, hainbestearainokoa, non burgesek nahiago izango zuten inperialismo hitleriarrarekin batzea komunismoaren mehatxuaren aurka, eta, beraz, SESBen aurka. Historiak erakutsi duen bezala, hirugarren aukera gailendu zen.

FRANTZIAKO ALDERDI KOMUNISTA ETA HERRI FRONTEA

VII. biltzarra 1935ean egin zen eta, ordurako, Frantzian erritmoak oso aurreraturik zeuden jada. Hitlerren mehatxuak areagotzen ari ziren, bereziki Alemaniako Alderdi Komunista suntsitu ondoren; langileriaren hainbat destakamentu antolatuk ekintza-batasunerako beharra aldarrikatu zuten. Horri ondorengo gehitu behar zaio: Frantzian liga faxistak (*Croix de Feu*) indar handia hartzen ari ziren, eta kale mailako indar paramilitar gisara funtzionatzen hasiak ziren (adibidez, 1934ko otsailean Asanblada Nazionalaren aurkako erasoaldi faxista gauzatu zuten). Testuinguru

horretan, Frantziako Alderdi Komunistaren eta SFIOren (Internazionale Sozialistaren delegaritzza frantsesa) oinarri sozialek langileria iraultzailearen ekintza batasun antifaxista aldarrikatu zuten. 1935era arte Internazionale Komunistak sozial-faxistatzat zeukan sozialdemokrazia, eta sozialisten oinarriarekin batasuna ongi ikusten bazuen ere, mesfidantzaz eta beligerantziaz begiratzen zien zuzendaritzako aparatuei. Honela zioen Frantziako Alderdi Komunistaren zuzendaritzak: “Inoiz baino anaitasun handiagoa adieraziko diegu langile sozialistei, inoiz baino indartsuago egingo diegu dei kamarada komunistekin batera ekin dezaten. Eta inoiz baino irmoago salatzen ditugu buruzagi sozialistak eta alderdi sozialista, burgesiaren zerbitzari eta gizarte kapitalistaren azken gotorleku baitira [...]”. Hala ere SFIOren zuzendaritzak temati jarraitu zuen Frantziako Alderdi Komunista erakarri nahian, Kominternak posizioz aldatzea erabaki zuen arte.

Posizio-aldaketa hori 1934ko maiatzean gauzatu zen eta, aipaturiko faktoreez gain, beste elementu batzuek ere eragina izan zuten. Batetik, sozialisten borroka-determinazioa nabarmen handitu zen faxismoaren mehatxupear; horren isla dira, Frantzi-az gain, baita Austriako, Erresuma Batuko eta Espainiako esperientziak ere, besteak beste. Alegia, sozialisten artean bazegoen komunismoaren alderdi historikora hurbiltzen ari zen sektore handi bat. Bestalde, Alemania eta Poloniaren arteko paktu militarra ere urte horretan adostu zen. SESBek asmo txarreko mehatxu gisa ikusi zuen; beste pauso bat gerra-goraldiaren norabidean. Paktu hori, gainera, Frantzian agintzen zuen fakzio burgesaren ikuspegitik ere mehatxu bat zen; izan ere, Lehen Mundu Gerraren ondoren eraikitako nazioarteko ordenaren aurka zihoan eta horrek Frantziaren nazio subiranotasuna kolokan jartzen ei zuen. Hala ere, kontrakotasun horren atzean, izatez, Frantziako oligarkiaren interes ekonomikoak zeuden, zeintzuei ez zitzaien komeni beste gerrate bat.



Jokaldi tranpati eta oportunistak izan zen Alderdi Erradikalaren sorrera, bere klase interesen aldeko maniobrak egitera eraman zuena, momentu batean folklore iraultzailearekin bat eginez eta, ondoren, praktikan faxismoarekiko jarrera koldar eta uzkurra erakutsiz

Beraz, Frantziako Alderdi Komunista eta SFIO elkartu egin ziren fronte zabal horretan. Gainera, Frantziako Alderdi Komunistako lider esanguratsu Thorez-ek are zabalpen handiagoa planteatu zuen fronte horretarako: Alderdi Erradikala ere erakarri zuten. Alderdi horrek, hain zuzen ere, burgesiaren fakzio erradikalenak elkartzen zituen, baita intelektualak edo hiriko zein landa-eremuko klase ertainak ere. Ez zeuden, ordea, faxismoaren aurka edozein baldintzatan borrokatzeko prest. Honela sintetizatzen zuen alderdiaren posizioa haren agintari Deladier-ek: “Ni ez naiz eskuindarra, baina nazkatuta nago nire alderdia estremisten atokian ikusteaz. Alderdi Erradikala ez da inolaz ere formazio iraultzaile bat”. Izan ere, Frantziako burgesiak faxismoaren mehatxuaren neurri berean zuen parean komunismoaren mehatxua, eta modu kontzientean saiatu zen Frantziako langileriaren iraultzarako potentziala kanalizatzen Herri Frontearen formularen bidez, hura hegemonizatuz termino ideologiko eta politikoetan. Aurrerago ikusi zen bezala, jokaldi tranpati eta oportunistak izan zen Alderdi Erradikalaren hori, bere klase interesen aldeko maniobrak egitera eraman zuena, momentu batean folklore iraultzailearekin bat eginez eta, ondoren, praktikan faxismoarekiko jarrera koldar eta uzkurra erakutsiz (Municheko akordioak, etab.).

Testuinguru horretan, Frantziak elkarri laguntzeko pakto bat proposatuko zion SESBi; pakto hori 1935 hasieran sinatu zuten. Bloke inperialistan higadurak sortzeko intentzioak abagune bikaina topatu zuen bertan; izan ere, Frantzia gainontzeko potentzia bakezaleetatik aldentzen zen SESBekiko beligerantziari zegokionez, bai eta Hitlerren aurka parez pare kokatu ere, gainera.

Gorako joera horrek Herri Fronte antifaxistan jo zuen gailurra, 1935eko uztailaren 14an: sozialistek, komunistek eta erradikal-errepublikarrek herri batasun antifaxista bat irudikatu zuten. Hauek izan ziren Herri Frontearen aldarrikapen nagusiak: erreforma ekonomikoak, askatasun demokratiko-burgesak eta bakearen aldeko politika (faxismoaren eta gerraren aurkakoa). Akordio minimo bat zen, baina testuinguru historikoaren partikularitasunak zentzu politiko handia ematen zioten iraultzarako aukeren ikuspegitik. Batetik, ulertzen zen erreforma ekonomiko-sozialen aukera agorturik zegoela kapitalismoan; bestetik, eskubide politikoaren aukera ere agortua zen autoritarismorantzko joera hartua zuen estatu ereduari; eta, azkenik, gerrarako joeraren aurrean burgesia nazionalen anibalentziaz eta zalantza jokatzeko zutenez, kontraesan handia zen haien zatik. Beraz, gizartearen mugimendu

historikoak kapitalismoaren gainbeherarako baldintzak jartzen zituen, eta komunismoaren alderdi historikoa zen antolatutako beharrek indar soziala. Herri Fronteak, komunisten gidaritzapean, ofentsibarako aukerak sor zitzaizkeen, beraz.

Horrekin batera, beste elementu oso esanguratsu bat klase ertainen auzia izan zen. Klase ertainen erradikalizazioa faxismoaren arnasgune bilakatu zitekeen, edo kontrara, komunismoaren sostengu, kartak ongi erabiltzen baziren. Horrek arrisku bat ekarri zuen: frontearen politikak klase ertainaren izpiritu politikoarekiko dependentzia garatzeko arriskua. Hona hemen adibide garbi bat: SFIOk ekoizpen bitartekoaren nazionalizazioa aldarrikatu zuen Herri Fronteak bere egin beharrekiko programalero gisa. Thorezek, ordea, argudiatu zuen, batetik, Alderdi Erradikala ez zela ados egongo, eta, bestetik, klase ertainen kontzientzia maila aintzat hartuta ezin zela une hartan puntu hori asumitu.

1936ko GREBA OROKORRA ETA SOBIETEN AUKEA

Kominternaren kongresuan, Thorezek termino hauetan azaldu zuen Frantziaren egoera 1935ean: “Masa mugimenduaren indarrak Herri Frontearen gobernu baten beharra inposa dezake; gure alderdiak gobernu hori babestuko luke, bai eta uneren batean parte hartzera iritsi ere. Hala, faxismoaren aurkako borroka latzagoa izango litzateke, erreakzionario eta faxisten erantzuna berehalakoa eta bortitza izango litzatekeelako. Baina ordurako Herri Fronteak eta Alderdi Komunistak posizio berriak izango litzateke, eta guk posizio horiek baliatuko genituzke sobieten boterearen ezarpena prestatzeko, alegia, proletariotzaren diktaduraren ezarpena prestatzeko”.

Alegia, 1935erako, Thorezen arabera 800.000 funtzionariok jada itxaropena galdua zuten ordena burgesean, burgesia txikia mesfidati ageri zen Alderdi Erradikalaren eta, oro har, alderdi burgesen zuzendaritzekiko, nekazarien gehiengo nahigabeak jota zegoen, eta Alderdi Komunistak zein sozialistak CGT eta CGTU sindikatuarekin batera igoera nabarmena izan zuten militantziari eta aldekoie zegokienez. Horregatik, “krisi iraultzaile” baten aukeraz mintzo zen Thorez. Bestalde, Frantziako, faxismoaren indarrak *Croix de Feu* liga faxistetako kontzentratu ziren, eta gerra zibilaren klima orokortuz joan zen. Bat-batean komunistak, sozialistak eta faxistak akordio batera iritsi ziren, eta guztiek euren antolakunde paramilitarrak disolbatzeko konpromisoa hartu zuten. Arrazoia: 1936ko maiatzeko hauteskundeak.

Klase ertainen erradikalizazioa faxismoaren arnasgune bilakatu zitekeen, edo kontrara, komunismoaren sostengu, kartak ongi erabiltzen baziren. Horrek arrisku bat ekarri zuen: frontearen politikak klase ertainaren izpiritu politikoarekiko dependentzia garatzeko arriskua

Herri Fronteak irabazi zituen hauteskundeok eta Herri Frontearen barrenean, indar korrelazioa argi eta garbi zen komunisten eta sozialisten aldekoa. Alderdi Erradikalak diputatu ugari galdu zituen, Frantziako Alderdi Komunista izan zen proportzioan gehien hazi zen indarra, eta, sozialisten artean, fakzio iraultzailea izan zen garaile nagusia (fakzio eskuindarra SFIOtik kanpo aurkeztu zen hauteskundeetara). Beraz, emaitza hori langileriaren kontzientziaren erakusle zen, bai eta klase ertainen erradikalizazioaren ispilu ere. Frantziako Alderdi Komunistaren gorakadak garrantzi berezia zeukan, esan nahi baitzuen proletariotzaren sektore borrokarienek erreferentzia irabazi zuela azken urteetan; izan ere, ordura arte sindikalismo iraultzailearen tesi soreliarrek aztarna sakona utzia zuten proletariotzaren baitan, eta sozialdemokraziak ere pisu nabarmena zeukan. Baina testuinguru historikoaren dialektikak, Frantziako Alderdi Komunistaren ekinbide propagandistarekin batera, frantziar proletariotzaren erreferente nagusi bilakatu zuen 1936rako.

Bada, egoera berriak ondorengo galderak iradokitzen zituen: zer interes zituen Hitlerrek eta zer interes SESBek Frantziako egoera berrian? Komeni al zen gerra zibil bat? Zer inplikazio izan zitzakeen ofentsiba iraultzaile batek Frantziaren gaitasun militarren ikuspegitik? Zer paper jokatu zuen armada? Zertan gera zitekeen paktu franko-sobietarra?

Bada, ia-ia analisisetarako aukerarik gabe, frantziar proletariotzak bere apustu propioa egin zuen hauteskundeetatik astebetara, 1936ko maiatzaren 11n: greba orokorra aldarrikatu zuten, eta fabriken okupazioa, patroien gatibatzea zein desjabetze iniziatibak lurralde osoan zabaldu ziren. Milioika langilek hartu zuten parte hilabetez luzatu zen greba hartan. CGTko Johaux-ek honela

azaldu zuen egoera “Mugimendua martxan hasi da, eta inork ez daki zehazki nola eta non hasi den”. Izan ere, Herri Frontearen gobernu berria sortu aurretik, langile masek iniziatiba hartu zuten, Frantziako Alderdi Komunistaren, SFIOren eta sindikatuen gainetik. Badirudi langileriak, Herri Frontearen garaipena aitzakiatzat hartuta eta berea zela sentituz, eztanda egin behar zuela, baina, era berean, eztanda eragin zutenak krisi ekonomikotik eta Lehen Mundu Gerratik arrastaka zihoazen bizi-baldintzak izan ziren, bai eta instituzio burgesekiko kontrakotasunak eta mesfidantzak ere, promesa faltsuen bidez langileak hainbeste urtean inpotentziara kondenatu zituzten haixek.

Hala eta guztiz ere, Frantziako Alderdi Komunistaren posizioak lekuko guztiak harritu zituen: proletariotzaren diktadura eta sozializazioranzko pausorik ematetik urrun, mugimendua baretzearen alde posizionatu zen, Herri Fronteko gainerako guztiak bezalaxe. Thorezek sintetizatu zuen posizio hau, aditzera emanez nekazarien gehiengoa oraindik ez zegoela iraultzara batzeko baldintzetan, ez eta burgesia txikiaren zati bat amaieraraino joateko prest ere. Ildo horretan, Frantziako Alderdi Komunistaren aurretik patronala, CGT eta Blum-en gobernu berria (Blum zen SFIOren erreferente nagusia) grebalarien mugimendua itzaltzen saiatu ziren, erreforma batzuk aitortuz Matignon-eko Akordioetan, baina mugimenduak bere horretan jarraitu zuen ekainaren 11ra arte; egun horretan, fabriketatik Paris erdialdera jotzeko mehatxua luzatu zuten grebalariek. Greba metalurgiaren sektorean zabaldu zen batik bat; bi milioitik gora grebalarik hartu zuten parte, eta Frantziako Alderdi Komunista zen erreferentzia politiko nagusia haien artean. Marceu Pivert-ek (fakzio iraultzaileena gorpuzten zuen SFIOn) ondorengo adierazi zuen:

“Orain, dena da posible ausartentzat”. Eta hau erantzun zion horri Thorezek: “Ez, dena ez da posible orain”.

Hala, Thorezek, emergentziazko bilkura batean, ondorengo irakurketa eta instrukzioak igorri zizkion Frantziako Alderdi Komunistaren militantziari: “Garrantzitsua bada ere mugimendu aldarrikatzaile bat gidatzea, are garrantzitsuagoa da hura nola bukarazi jakitea. Orain, kontua ez da boterea hartzea. Mundu guztiak daki gure helburua langile, nekazari eta soldaduen kontseiluek eraturako Frantziako Errepublikak ezartzea dela oraindik ere, inolako zalantzarik gabe. Baina hori ez da gaur gauean gertatuko, ez eta bihar goizean ere”.

Thorezek Frantziako Alderdi Komunistaren energia guztiak bideratu zituen greba hori “ondobidean” amaitzera, hura baretzeko ahalegin guztiak eginez.

Beraz, Frantziako Alderdi Komunistako agintariek planteatu zuten 1936ko maiatzekaineko langile oldarraldiaren atzean boterearen auzia zegoela eta, modu horretan, aditzera eman zuten ez zegoela horretarako baldintzarik. Aldiz, zalantzagarria da ea greba horien potentzial iraultzailea ezinbestean boterearen berehalako konkistan kristalizatu behar zen edo lehenik horretarako kondizio diren botere organoak sortzen lagundu behar zuen; alegia, sobietak sortzen. Botere politikoaren konkistaren auzia planteatzeko modua –matxinada iraultzailearen momentura mugatzea edo botere organoen sorrerara eta botere bikoitzaren egoerara– erabakigarria izan zen; izan ere, Thorezek adierazi bezala, Herri Frontea ez zen iraultza, ez zen instituzio iraultzaile sorta bat, baizik eta klase kontraesan handiak gorpuzten zituen plataforma taktiko bat. Beraz, kasu honetan ere, Frantziako gizartearen krisiak ondorengo auzia planteatzen zuen: erreforman sakondu ala iraultzan sakondu.

Historiaren puntu honetan honako hau galdetu behar da: zer dela eta Thorezen eta Frantziako Alderdi Komunistaren jarrera hori? Zergatik ez sakondu iraultza proletarioan?

HITLERREN MEHATXUAREN INPLIKAZIO GORDINAK

Marcel Gitton Frantziako Alderdi Komunistako agintari garrantzitsuak, Hitlerren mehatxuaren harira, esaten zuen Frantziaren segurtasuna zegoela beste guztiaren gainetik. Geroago, SESBeko kanpo-politikako komisario Litminov-ek (Molotov-en aurrekoak) ere aditzera eman zuen lehentasuna Frantziaren gaitasun militarrek mantentzea izango zela.

Blum presidenteak hauxe adierazi zuen urte batzuk beranduago: “Egoerak traza arriskutsuki estua hartu bezain laster, Francok emandako indar kolpearen pareko zerbait izango genukeen Frantzian. Atzerriko gerra baten aurretik, Frantziak gerra zibila izango zukeen, eta Errepublikak garaile ateratzeko aukera gutxi”.

Aldiz, historiak erakutsi duen bezala, Frantziako armadan sektore erreakzionario bat egon bazegoen ere –Petain jeneralak ordezkaturak–, sektore horrek Vichyko Erregimena soilik nazien okupazioaren testuinguruan ezarri ahal izan zuen, indar faltagatik hain zuzen ere. Espainiako Alderdi Komunistak honela azaldu zuen egoera aurrerago: “1936ko baldintzekin, Frantzian, kolpe faxista bat porrotera kondenatuta zegoen (...) Blumek beldur bat zuen, eta hura gauzatzea eragozten ahalegindu zen: proletariotzaren mugimendua indartzea eta Herri Fronteak garaipen osoa eskuratzea, ez soilik Espainian, baizik eta baita Frantzian ere”. Izan ere, Espainian ere egoera iraultzailea argitu zen 1936ko uztaillean, baina, ordurako, Frantzian erreformaren bidetik itzali zen langile grebaren potentzial iraultzailea.

Testuinguru historikoaren dialektikak, Frantziako Alderdi Komunistaren ekinbide propagandistarekin batera, frantziar proletariotzaren erreferente nagusi bilakatu zuen 1936rako alderdi hori



*Frantziako Alderdi
Komunistak ataka
garrantzitsuan aurkitu
zuen bere burua:
sobieten antolakuntza
sustatzuz posible zen
gorako joera batekin
botere politikoaren
konkista gauzatzea,
baina horrek gerra
zibila ekar zezakeen,
edota inbasio hitleriarra*

Frantziako Alderdi Komunistaren posizioak guztiz erabakigarriak izan ziren zentzu guztietan. Nazioarteko iraultza sozialistaren, Bigarren Mundu Gerraren eta SESBen patua zeharo baldintzatu zuten 36ko maiatz-ekainean hartutako erabakiek

Guztiarekin, Frantziako Alderdi Komunistak ataka garrantzitsuan aurkitu zuen bere burua: sobieten antolakuntza sustatuz posible zen gorako joera batekin botere politikoaren konkista gauzatzea, baina horrek gerra zibila ekar zezakeen, edota inbasio hitleriarra. SESBek nola edo hala aliatu frantsesaren potentzia militarra mantendu nahi zuen, gerrarako joera gero eta nabarmenagoak ez zezan haren aurkako kolpe inperialista bateratu batean lur hartu. Horrekin batera, ikusteke zegoen bloke inperialistako gainontzeko herrialdeek (AEB eta Erresuma Batua, bereziki) zer posizio hartuko zuketan Frantzia proletario baten aurrean. Bestalde, Espainiako Alderdi Komunistako agintariek zioten gisara (Dolores Ibarruri buru zutela), Espainiako iraultzaren garaipenerako aukerak asko baldintzatu zituen 36ko greban Thorezek eta Blumenek esku hartu izanak.

Hala ere, esan daiteke Frantziako Alderdi Komunistaren posizioak guztiz erabakigarriak izan zirela zentzu guztietan. Nazioarteko iraultza sozialistaren, Bigarren Mundu Gerraren eta SESBen patua zeharo baldintzatu zuten 36ko maiatz-ekainean hartutako erabakiek. Hala ere, sobieten botereak frantziar lurraldean ateak ireki zitzakeen bezala, arriskuak ere zeharo handiak ziren, faxismoaren hedapen territorialak komunismoarentzat eta ordenaren alderditik antolatzen zen ororentzat diktadura terrorista bat inplikatuko zukeelako. Lukács-ek era honetan sintetitzatu zituen SESBen hautuaren bi aurpegiak, egokitasunaren eta zorigaiztoaren artean: “Bigarren Mundu Gerran SESB erori izan balitz, sozialismoaren perspektibak 200 urtez atzeratuko ziren. Oso prezio altua ordaindu behar izan genuen horren truke: pertsona askok dezepzioa hartu zuten sozialismoarekiko eta marxismoarekiko”. Aintzat har dezagun, gainera, SESBek egin zituen aurreikuspenak bete egin zirela oligarkia estatubatuar, ingeles eta frantsesei zegokienez; batetik, 1938ko Municheko Paktuak erakutsi

bezala eta, bestetik, SESBekin akordioetara iristeko ahal bezainbeste oztopo jarritz, Hitlerrek SESB erasotzeko kondizioak hauspotuz etengabe. Ribentropp-Molotov akordioa soilik testuinguru horretan uler daiteke.

Laburbilduz, badirudi azkenean faxismoaren mehatxuak baldintzatu zuela Frantziako Alderdi Komunistaren jarduna; faxismoarentzat arnasgune izan zitezkeen egoera guztiak ekidin behar ziren eta SESBek denbora irabazi behar zuen “borroka sakraturako prestatzeko”. Prozesu horretan, Frantzian “barne-liskarrak” ekidin behar ziren, Liminovek zioen moduan, nola edo hala.

Komunismoaren historian, eta, oro har, gizateriaren historian, "oren goren" batzuk izan ohi dira (Stefan Zweigen hitzak gogoratzuz), zeintzuetan erabaki batek hurrengo hamarkadak zein mendeak baldintzatu ahal dituen. Susmoa dut, 30eko hamarkada asaldatuan momentu horietako asko gertatu zirela, eta horietako bat Frantziako Alderdi Komunistaren zeregina izan zela. Kasik ezinezkoa da imajinatzea zer gerta zitekeen gertaerek beste noranzko bat hartu izan balute, baina, dena dela, eta jazoera horietan sakontzeko elementu guztiak mahai gainean izan gabe ere, nabarmena da patu latza inposatu zitzaizela garaiko komunistei halako kontestuen gainean deliberatzerakoan. Iraultzarako berehalako baldintzei uko eginez, etorkizuneko borrokarako baldintzak lehenetsi zituzten eta, hala, inteligentzia eta etika estrategiko izugarria demostratu zuten. Erabakiak hobeak eta okerragoak izan zitezkeen, eta jarraituko dugu horiek aztertzen eta haiengandik ikasten, baina epai moralistetatik eta ezkerkeriatik urrun goratu behar ditugu garaiko komunisten ahalegina, determinazioa eta heroitasuna. Erabaki horiei esker ere gaur-gaurkoz komunismoaren birrosaketa planteatzen dezakegu; erabaki horiei esker ziklo iraultzaile berri baterako ateak irekitzeko atarian egon gaitezke. ●



PCI BERRIA: ARRISKU HANDIKO HEGALDI BAT



Testua — **Telmo Zulaika**

Mussoliniren gobernu faxistarekin, oposizioko alderdi guztiak legez kanpo geratu ziren. Hala gelditu zen Italiako Alderdi Komunista (Partito Comunista Italiano, PCI) ere, 1925eko azaroaren 5ean. Laster beteko da mende bat legez kanpo utzi zutenetik, mende bat alderdi gaztearen jardura klandestinitatean garatzen hasi zenetik. Bordiga, Gramsci –ordura arte PCIko idazkari nagusia– eta alderdiko beste zenbait lider erbesteratu eta espetxeratzea kolpe gogorra izan zen, baina ez hilgarria. Erregimen faxistaren indarrari eta taktikei aurre egiteko ezintasunak zaildu egin zuen alderdi gaztearen jarduna, eta, 1928rako, 7.000ra jaitsi zitzaion militante kopurua. Horrela, egoera berrira egokitzeko, berregituratu egin behar izan zuen Italiako Alderdi Komunista Bigarren Mundu Gerran berpiztuko zen alderdi handi gisa, militanteen lanari eta gaitasunari esker.

Marchiniri jarraituz, esan genezake PCIren ondorengo garapena markatu zuten hiru gertakizun esanguratsu izan zirela Bigarren Mundu Gerran. Lehenengoa, militante komunisten eta sozialisten artean piztu zen batasun antifaxistaren eskaria izan zen, zeinak 1934ko abuztuan ekintza-batasunerako ituna ekarri baitzuen. Gainera, itun horrek bat egin zuen politika fronte-populistarekin, zeina 1935ean finkatu zen Hirugarren Internazionalaren zazpigarren biltzarrean. Komunisten eta sozialisten arteko lankidetzaz ez zen bide laua eta erraza izan. Besteak beste, tentsio une bat egon zen 1939an, hain justu PCIk sozialistekin zuen aliantzan, Alemaniak eta Sobietar Batasunak elkarri ez erasotzeko ituna egin zutenean, baina lankidetzaz ez zen apurtzera iritsi, eta erritmo bizian funtzionatzen hasi zen 1941ean, Alemania naziak SESBen aurka egindako inbasioaren ondorioz, itun hura hautsi zenean.

Bigarren une garrantzitsua Italiatik erbestera-tutako militanteek Espainiako gerra zibilean izan zuten parte-hartzea izan zen. Alde batetik, eskarmentua eskuratu zuten, zeina geroago Italiako Erresistentziako lerroetan frogatuko zuten; bestetik, komunistek indar antifaxisten lidergoa hartu zuten borroka horretan. Bizipen hori funtsezko zutabea izan zen Italiako mugimendu partisoaren eraketan.

Hirugarren eta azken gertaera 1940an Italia gerran sartu zeneko giroa izan zen. Alde batetik, Etiopiaren eta Espainiaren aurkako urteetako gerrak eragindako apatia eta neke giroa nagusi zen; eta, beste alde batetik, talde militar faxista ez zegoen behar bezala horniturik aipatutako herrialdeetara armak bidaltzeagatik. Faxismoarentzat eta Mussolinirentzat hondamendia izan zen, Italiako armadak hasieratik inoiz baitzituen porrotak. Marchiniren arabera, Italiako Alderdi Komunistarentzat gerra, talde antifaxistekin batera erresistentzia koordinatzeko eta faxismoa erabat suntsitzeko aukera ez ezik, aukera paregabeara zen Italian langile-klasearen lidergoa lortu eta komunismoa ezartzeko.

Italiako komunismoaren historia ezagutzeko saiakeran, hauek dira, nire ustez, Bigarren Mundu Gerran zehar izan ziren gertaera nagusiak: PCIren jokaera Alemaniak eta Sobietar Batasunak elkarri ez erasotzeko egindako ituna hautsi zenetik Mussolini erori arte, PCIren rol hegemonista Erresistentzian, eta PCIren aldaketa estrategikoa eta taktikoa.

AIRERATZEA KLANDESTINITATEAN

1941eko uztailean, Togliattik, Moskun erbestera-tua zegoen PCIko idazkari nagusiak, Italiara bidali zuen Umberto Massola, Mussoliniren agintaldian bizirik eutsi zioten talde komunista txikiekin kontakta zezan, euren jarduerak berriro martxan jarri ahal izateko. Horrez gain, *Quaderni di lavoratore* buletin klandestinoaren inprimategia eta banaketa berrezartzea lortu zuen. Buletina propaganda-rako eta borrokarako tresna zen, eta, haren bidez, alderdiaren ildo ofizialak zabaldu ziren, Togliattik Mosku Irratiaren emanaldietan agindutakoak, alderdiaren egitura bizirik mantentzeko helburuz.

1941eko udazkenean, Sobietar Batasuna gerran sartu zenean eta faxismoak laster porrot egingo zuelakoan, komunistek erasoaldiari ekin zioten. Alderdiko antolatzaileak iparraldeko hirietako fabriketara abiatu ziren nukleoak antolatuz eta heziketa-prozesu bat hastera faxismoaren porrota aldarrikatzen zuen propagandaren bitartez. Italiako Alderdi Komunistak infiltratuak bidali zituen populazioa asaldatzeko, eta batez ere, fabriketako langileen ezinegona bideratzeko. Horixe zen PCIren zio nagusia matxinadarako indarrak batzerakoan: iparraldeko hiri industrialetako langile-klasea. 1941ean eta 1942an, komunistek beren lana egin ahal izan zuten, eta trebetasunez antolatu eta mobilizatu zituzten fabriketako langileak. Infiltratuek nukleoak berrezarri zituzten garrantzi handiko tokietan, hala nola Fiat enpresan, ekoizpen militarra sabotatzen saiatzeko.

Komunisten antolatzeko gaitasuna ez zen alferrik galdu. 1942ko bigarren erdialdean eta 1943ko hasieran, komunistek hainbat greba hasi eta zuzendu zituzten, eta, haien bitartez, Italiako fabriketako ekoizpen militarra etetea lortu zuten. Ekimen horren puntu gorena 1943an Fiatek Turinen zuen lantegi handian egindako greba izan zen.



Italiako Alderdi Komunistarentzat gerra, talde antifaxistekin batera erresistentzia koordinatzeko eta faxismoa erabat suntsitzeko aukera ez ezik, aukera paregabeara zen Italian langile-klasearen lidergoa lortu eta komunismoa ezartzeko



Nahiz eta 1943ko matxinadak ez ziren erregimen faxistaren oposizio argian zeuden lehenak, garrantzitsuak izan ziren, gerraren jarraipenaren aurka eta faxismoaren erorketaren aldeko potentziala eta ekintza-gaitasuna erakutsi zutelako. PCIrentzat, grebek baieztatu zuten berak zuela lidergoa eta langileen kontrola; faxistentzat, berriz, 1943ko grebek Italian berria zen fenomeno bat utzi zuten agerian: euren arauak kontra egiten ziren oposizio antolatu eta eraginkor bat. Alde batetik, faxistek lehen aldiz sentitu zuten haien kontrako erakustaldi boteretsu bat, zeina ez baitziren gai izan era egokian borrokatzeko. Poliziaren errepresioak fabriken barruan eta kanpoan jardun bazuen ere, ezin izan zituzten grebak hautsi, eta amore eman behar izan zuten langileen eskarien aurrean. Bestetik, erregimen faxistak Turindik haratago hedatu zen greba sare bati egin behar izan zion aurre.

Matxinadak hasi zituztenak, haien artean komunistak, Frantzian bildu ziren, eta helburu komun bat berretsi zuten: faxismoa posible egin zuten elementu politiko, ekonomiko eta sozialak suntsitzeko zereginari ekitea, eta, horretarako, Italian demokrazia berrezartzea eta langileen boterea bermatuko zuen Estatu bat berreraikitzea. Lyongo biltzarrean dokumentu antifaxista bat sortu zen, lehen aldiz aitortzen zuena esplizituki eta guztien adostasunez etsaia eraisteko beharrezkoa zela matxinada nazional bat. Klean manifestazioak egitera dei egiten zuen, grebak egitera gerrarako ekoizpena sabotatzeko, talde partisoak antolatuz arerioaren aurka borrokatzeko, eta oro har, Italiako herriari dei egiten zion armak hartu eta antifaxista zela adieraztera. Erresistentziaren mugimenduak izan zuen, bere partisoekin eta bere Nazio Askapenerako Komiteekin (CLN), faxismoa suntsitzeko lidergoa.



Italiako Alderdi Komunistaren garapen politikorako une erabakigarria 1943ko uztailaren 25ean iritsi zen, Mussoliniren erregimena erori zenean bere talde buruzagiaren barne krisiagatik. Kontseilu Faxista Handian gutxiengoan zegoela-eta, Mussolinik dimisioa eman zuen.

Badogliok hartu zuen, Vittorio Emanuele III.a erregeak izendaturik, Italiako gobernu berri baten buruzagitza, eta armistizioa sinatu zuen Aliatuekin. Horrek Alemaniaren berehalako erreakzioa eragin zuen: Italiako erdialdea eta iparraldea okupatu zituen, Italiako Errepublikak Soziala sortu zuen eta horko lider gisa Mussolini izendatu zuten. Orduan hasi zen Italiako Gerra Zibila esaten zaiona.

PCI, ITALIAKO ERRESISTENTZIAREN PILOTUA

Italia bitan banatuta zegoen. Hegoaldean, aliatuek askatu ondoren, gobernu monarkikoa ezarri zen. Erdialde-iparraldean, aldiz, alemanek inbaditu ondoren, azkar eratu zen erresistentzia. Italiako Alderdi Komunistak funtsezko hiru abantaila zituela ekin zion garai horri. Lehenengoa, atzerrian eta Italian bertan egindako ahalegin klandestinoei esker, hasieratik bideragarria zen antolakunde bat izatea; antolakunde hori bere horretan zegoen, eta herrialdean existitzen zen edozein egitura baino goragoko maila batean. Bigarrena iparraldeko industriako langile-klaseen laguntza gero eta handiagoa izan zen; laguntza hori dagoeneko nabarmendua zen 1943ko industria-grebetan. Komunisten azken abantaila zen parte-hartze handia eta lidergoa zutela Erresistentzian.


Erresistentziak zenbait lekutatik jasotzen zuen laguntza. Adibidez, Industriako langileek ekoizpen-ratioa murrizten laguntzen zuten, Alemaniako gerra-ekoizpena kaltetzeko; eta nekazariak uko egiten zioten nekazaritza-produktuak hornitzeari, eta, ahal zenean, partisanoak ezkutatzen zituzten. Gainera, Erresistentzia hegala politikoa eta hegala militar batek osatzen zuten. Hegala politikoa

tokiko Askapenerako Komiteek osatzen zuten; bigarren dibisio handiena hegala militarra zen, eta haren kideei “partisano” esaten zaie. 1944an, alderdi antifaxistak Askapenerako Komiteetan biltzea lortu zen, komite horiek zuzendaritza-organo gisa aitortuta; horrez gain, iparraldeko lantegi handietan, aldarrikapen ekonomikoen bidez, langileen grebak sustatu ziren. Langile horiek ez zeuden partisanoekin bat eginda, eta beren politizazio prozesua geldoa zen, baina erresistentziari laguntzen zioten, besteak beste, errepresio faxista indiskriminatuari erantzuteko. Era horretan lortu zen iritziz publikoaren sektore handietan eragina izatea.

Borroka horretako abangoardian komunistak egon ziren. Eta PCIk zeuzkan brigada partisanorik onenak eta handienak; “Garibaldi brigadak” deitzen ziren, haiek zuten antolakuntzarik onena, eta, nahiz eta unitateetako kide guztiak ez ziren komunistak, taldeko lidergoa koadro komunistek eraman behar zuten. Erresistentziako brigada partisanoen gutxi gorabehera erdia baziren ere, ez zeuden bakarririk mugimendu horretan, eta haien ondoan beste mugimendu antifaxista batzuk ere bazeuden, hala nola Italiako Alderdi Sozialista (PSI) eta Demokrazia Kristaua (DC).

Erresistentzian parte hartu zuten komunistak diziplinatuak eta alderdiarekin konprometituak ziren, eta Erresistentziaren kausara subordinatu beharraren jarrera ezarri zuten brigadetan. Hala eta guztiz ere, Italiako Alderdi Komunistarentzat inflexio-puntu bat zen Erresistentzia; hau da, alemaniarrek Italiatik kanporatzeko antolatutako indar nazionala ez ezik, herrialdearen egitura politikoa eta soziala birmoldatuko zuen mugimendua ere bazen. Hortaz, PCIk bi helburu zituen Erresistentzian, eta lehenengoa mugimendua osatuko zuten talde guztiekin partekatzen zuen.

PCIrentzat, grebek baieztatu zuten berak zuela lidergoa eta langileen kontrola; faxistentzat, berriz, 1943ko grebek Italian berria zen fenomeno bat utzi zuten agerian: euren arauari kontra egiten zien oposizio antolatu eta eraginkor bat



***PCIk zeuzkan brigada
partisanorik onenak eta
handienak; “Garibaldi
brigadak” deitzen ziren, haiek
zuten antolakuntzarik onena,
eta, nahiz eta unitateetako kide
guztiak ez ziren komunistak,
taldeko lidergoa koadro
komunistek eraman behar zuten***

***Nahiz eta talde
partisano askok
egunkariak,
panfletoak eta
buletinak ere kaleratu
zituzten, Italiako
Alderdi Komunista
propagandako
eta agitazioko
erreferente bihurtu
zen mugimenduaren
barruan***

Lehen helburua Giltzarria izan zen lehen helburua lortzeko joera, jokaera giltzarria izan zen, batetik, antolakuntza-trebetasun eraginkorra izateagatik, eta, bestetik, lidergoagatik, ez soilik Garibaldi brigaden artean, ezpada gainontzeko talde partisoentzako eredu gisa ere. 1944an PCIk komisario politikoaren kontzeptua ezarri zuen. Garibaldi brigadek komisario bat zuten 50 pertsonako, eta haren zeregin nagusia taldean diziiplina ezinbestekoa zela barneraraztea zen. Hori lortzeko, eztabaida politiko eta irakurketa publikoak egiten zituzten behar adina orduz egunero. Komisarioen diziiplina-metodoaren adibide da honako jarraibide hau: “Fabriketan, herrietan, bulegoetan edota formazio partisoetan dauden komunistek antolatzeke eta jarduerak aurrera eramateko betebeharra daukate. Hala egiten ez badute, praktikan ez dute funtzionatuko alderdiaren barruan. Ahulezia eta diziiplina eza

daude komunistarik ez dagoen tokian, eta horiek indar-elementu izan daitezten antolaturik egon behar dute.” Gainera, PCIren lana bere partiso-taldearen eta alderdiaren artean koordinatzeaz arduratzen zen komisarioa. Horretarako, probintzia bakoitzean komite federalera bidaltzen zuen pertsona ikuskatzen zuen. Komite horrek probintzian zeuden banda partisoetako nukleo guztien funtzionamendua koordinatzen zuen, eta, egon behar zuten tokietan nukleorik ez bazegoen, komisarioa arduratzen zen berehala sortzeaz.

Nabarmendu behar da komisarioaren erantzukizuna ez zela PCIren erabilera eskusiboa izan, baizik eta beste talde batzuek ideia kopiaututela. Hori gertatu zenean, komunistek ahalegin handia egin zuten alderdiko pertsona bana jartzeko posizio estrategiko horietan posizio estrategiko horietan jartzeko.

Nahiz eta talde partiso askok egunkariak, panfletoak eta buletinak ere kaleratu zituzten, Italiako Alderdi Komunista propagandako eta agitazioko erreferente bihurtu zen mugimenduaren barruan. Beste talde askok baino material gehiago argitaratu zuen, eta erregularitasunez egiten zituen argitalpenak talde partisoentzat. Argitalpenen helburu nagusia Erresistentziaren moralari eustea eta haren ideiak jakitera ematea zen. *La nostra lotta* agitazio panfleto bat zen, *L’Unita* alderdiaren eguneroko egunkaria eta *La Rinascita*, berriz, 1944an Togliattik mugimendu komunistaren ildo ideologikoa eratzeke sortu zuen hilabetekaria.

PCIren antolakuntza- eta lidergo-ezaugarriak berriro ere agerian gelditu ziren lehenengo *Gappistiak* (GAP) sortzean, eta *Sappistiak* (SAP) geroago. GAPak unitate klandestino txikiak ziren, hiriko sabotaje-ekintzetan, atentatu selektiboetan eta propaganda armatuan espezializatuak. SAPek, ordea, industriaren defentsan eta sabotaje oinarritutako talde zabalagoetan jarduten zuten. Haien papera erabakigarria izan zen hirietan etsaiaren gaineko presioari eusteko, nahiz eta nazien eta faxisten errepresio gogorra eragin zuen.

Antolaketa-metodoak eta berrikuntza taktikoak ezartzeaz gain, PCIk lidergoa lortu zuen industriaguneetako fabriketan. Langileak teknikoki Erresistentziaren parte ez baziren ere, Italiako Alderdi Komunistarentzat haiek ziren gerraostean Italiako gizartearen aldaketa politikoa, soziala eta ekonomikoa gauzatzen lagunduko zuen proletariotza. 1944ko martxoan, PCIk, Italiako iparraldeko Nazio Askapenerako Komitearekin (CLN) batera, greba orokor bat antolatu zuen, eta oso arrakastatsua izan zen; izan ere, PCIren antolakuntzari eta haren agitazio trebetasunari esker, jende askok eta askok parte hartu zuen hartan. Grebak Alemaniarentzako arma-ekoizpena geldiaraztea lortu zuen; gainera, faxismoaren aurrean etsaitasun handiagoa erakusteko garai baten hasiera ekarri zuen, eta bazirudien indartu egin zuela etsaia garaitzeko batera lan egiteko jarrera.

PCIk Erresistentzian parte-hartzeak arrakasta eduki zuen, 1945eko apirilaren 25ean Alemania eta faxistak garaitzeko lehen helburua bete baitzuen, baina mugimenduan parte-hartzearen bigarren helburua ez zen bete.

NORABIDE ALDAKETA

Il sarto di Ulm obran (Ulmeko sastrea), Magrik bere buruari galdetzen dio zein egunetan jaio zen Italiako Alderdi Komunista berria, eta 1944ko martxoaren 27an sortu zela erantzuten du. Egun horretan Italiara itzuli zen Togliatti, eta erabaki bat proposatu zien bere alderdiari eta antifaxistei. Erabaki horri Salernoko biraketa esaten zaio (*svolta di Salerno*): PCIk erabaki zuen gobernuan sartzea Nazio Askapenerako Komitea osatzen zuten beste bost alderdiekin.

Togliatti iritsi zenean, askatu beharreko bi korapilo zeuden. Alde batetik, zein izaera eta helburu eduki behar zituen indarrean zegoen gerrak; bestetik, zein aliantza lortu behar ziren ahalik eta bultzada handiena lortzeko. Gertakizunen aurrean zain egotearen jarrera hausten saiatzea zen asmoa. Ematen zuen gerra amaitzear zegoela, baina zer esan nahi zuen horrek? Zer irtenbide aurreikusi, eta zer eraiki gerraosterako? Togliatti korapiloa errotik askatzera etorri zen. Une horretan, paralizatzeko arriskuan zeuden indar antifaxistak, iparraldeko eta hegoaldeko indarren artean zeuden desberdintasunengatik. Lehen desadostasuna monarkiarekin eta Badogliorekin izan beharreko harremanari buruzkoa zen, Aliatuek legitimatu egin baitzituzten, eta haiekin kolaboratzen baitzuten okupatutako eremuetan. Alderdi antifaxistek, hegoaldekoek zein iparraldekoek, gaitzetsi egiten zuten kolaborazioa legitimatzea, eta uko egiten zioten bandera haren pean borroka egiteari. Baina ezkerreko alderdiek errepublikaren aukera bete zedin eskatzen zuten, eta gobernu alternatibo bat era zedin Nazio Askapenerako Komitean oinarrituta. Horretarako, erregea abdikatzera behartu beharko zen, gobernuburu berri bat edukiko zuen gobernu berri bat osatzeko. PCIk berak eztabaida bizia zuen, denek baztertzen zuten Badoglioren gobernuarekin itun bat egitea, baina Erroman finkatutako buruzagi-taldeak lehentasunezkotzat jotzen zuen eztabaida hori, eta Milango taldeak, ordea, iradokitzen zuen ez zela denbora gehiegi galdu behar, eta eztabaida praktikan ebatzi behar zela, baina Erresistentzia armatuaren garapena zela lehentasuna.

Handik gutxira, Togliattik esku hartu zuen, eta proposatu zuen herrialdeak errepublika ala monarkia izan behar ote zuen eztabaida gerra amaitu arte atzeratzea, eta erabakia erreferendum baten bidez hartzea. Horrela, Badogliok gobernuburuaz izaten jarraitu ahal izango zuen bi baldintzarekin. Lehenengoa, indar antifaxistak gobernu taldean sartzea, eta alemaniarrek eta

Ematen zuen gerra amaitzear zegoela, baina zer esan nahi zuen horrek? Zer irtenbide aurreikusi, eta zer eraiki gerraosterako? Togliatti korapiloa errotik askatzera etorri zen

faxistak seriotasunez borrokatzeko konpromisoa hartzea. Bigarren baldintza zen Italiaren zatirik handiena alemaniarren okupaziotik aliatuek askatu baino lehen askatu behar izatea.

Togliatti itzuli baino bi aste lehenago, SEBSek formalki iragarri zuen ontzat ematen zuela Badoglioren gobernu. Horri Togliattiren autoritatea gehitu behar zitzaion, zeina itzal handiko pertsona eta PCIko buruzagi eztabaidaezina baitzen. Gainera, Stalinek, Stalingradeko garaipenaren ondoren eta armada sobietarrak aurrera zihoazela, ospe handia zuen, eta ez bakarrik komunisten artean. Horrek guztiak lagundu zuen proposamena laster onar zezaten denek; izan ere, benetako konpromisoa zen eta, aldi berean, borroka armatuari bultzada emateko modu bat. Gainera, matxinada-esparru horretan guztion ahalegina eskatzen zen, baina aldi berean, bermatzen zen etorkizunean lehiarako espazio bat egongo zela. Alderdiaren lankidetzari esker, Nazio Askapenerako Komiteak (CLN) gobernura sartzea lortu zuen, eta komunistek karguak izan zituzten ondorengo gobernu taldeetan, baina denbora gutxirako.

Dena den, bazen beste arrisku bat Togliattik bere etorreran aurre egin behar izan ziona. Gerraosterako aukera taktiko eta estrategiko bat zehaztu behar zuen. Horrek bete-betean eragiten zien Erresistentzian inplikaturako norbanakoei eta antolakundeei. Grebak antolatzen ari ziren pertsonak, mendian borrokatzen zirenak eta abar ez ziren konformatzen faxismoaren aurretik zeuden instituzioak berrezartzearekin bakarrik; aitzitik, herriak kontrolatu ahal izango zuen demokrazia ireki bat nahi zuten, edota, kasu askotan, gizartea berehala eraldatzen hasi. Hortaz, kontuan hartuta Italiak nazioartean zuen posizioa eta Italian bertan zeuden indar-harremanak, nola eta noiz bete zitezkeen helburu horiek?



Togliattik Salernoko biraketari eman zion Italiako komunismoa birsortzearen abiapuntua, eta estrategia berria prestatu zuen

Togliattik Salernoko biraketari eman zion Italiako komunismoa birsortzearen abiapuntua, eta estrategia berria prestatu zuen. Magrik dioen moduan, Errepublika demokratiko eta alderdianiztun bat sortzeko aukera onartu behar zen, adierazpen, prentsa eta erlijio askatasunak erabat bermatuko zituen. Errepublika horrek, aldi berean, *carta magna* dokumentutik hasita, erreforma sozial sakonen programa bat bideratuko zuen, eta langileek eta haien antolakundeek etengabeko parte hartuko zuten bertan, haiek bermatuko baitzuten independentzia nazionala, eta gerra eta potentzien artean blokeak eratzea gaitzetsiko zituzten. Bide hori egin ahal izateko, alderdi berri bat behar zen, masalderdi bat, ez bakarrik zenbakizko zentzuan, baizik eta programa batekiko atxikimenduan oinarritzen zena, ez ideologia batean, eta propaganda egiteko ez ezik politika egiteko ere gai zena.

Honela adierazi zuen Togliattik “Alderdi Berriaren” esanahia 1944an, Erroman eman zuen hitzaldian: “Alderdi berri bat, batez ere, langileen eta herriaren alderdi bat da; ez du mugatu behar kritika eta propaganda egitera, baizik eta herrialdearen bizitzan esku hartu behar du haren berezko jardun positibo eta eraikitzailearen bidez. Jardun hori fabrika- eta herri-sektoreetan hasten da, eta Komite Zentralak eta langile-klasea Gobernuan ordezkatzeko aukeratzen ditugun pertsonei hura zabaltzea dagokie. Argi dago, hortaz, alderdi berri bati buruz ari garenean, batez ere, politika nazionalaren arazoei dagokienez, bere politketan, antolaketan eta eguneroko jardunean langile-klasearen posizioan gertatu den aldaketa sakona islatzeko gai den alderdi bati buruz ari garela.”

GOIETATIK ERORTZEA: PCI GERRAOSTEAN

1945eko apirilean nazi-faxistek porrot egindakoan, milaka partisano armatu zeuden, eta iparraldeko lurraldeak kontrolatzen zituzten. Orduan piztu zen galdera: partisanoeek armak entregatu, eta gobernu berriaren menpe utzi behar zituzten ala gorde egin behar zituzten eraldaketa iraultzaile baterako berme gisa? Togliattik berak hartu zuen parte milizia partisanoaren armagabetzean, eta, Keith Loweren esanetan, pertsonalki bisitatu zituen herrialdeko eremu indiziplinatuenak, PCIko tokiko eta probintziako buruzagiei eskatzeko beren afiliatuak hobeto kontrola zitzaaten, eta ziurta zezaten ez zela erailketa gehiagorik izango. Frantziako Alderdi Komunistako Maurize Thorez agintariak egin zuen bezala, Togliattik argi utzi zuen: “Batasun nazionalari eutsi behar diogu, gure ondasunik preziatuena baita.”



PCIren antolaketarako gaitasuna izugarria zen, ezbairik gabe Mendebalde osoko handiena, 1946an bi milioi kide baitzituen; paradoxikoki, ordea, gaitasun hori ez zen neurri bereko hauteskunde-indar bihurtu

Armak entregatuta eta iraultza eszenatokik kanpo, PCIk bi helburu izan zituen politikoki bazterturik ez geratzeko: lehena, Italiako sozialistekin ekintza batasuna lortzea; bigarrena, Demokrazia Kristaua alderdiarekin elkar ulertzea, Italia alderdi komunistarekin eta alderdi sozialistarekin batera gobernatzeaz konbentzitzeko.

PCI ez zen alderdi ahula. Hogei urtez indarkeria faxista jasan ondoren, ospe handia eskuratu zuen Erresistentzian, eta industria-langileen artean ere babes handia lortu zuen. Hori lurraldetasunean eta militante kopuruan frogatu zen: alderdia etengabe hazten hasi zen bai antolaketaren ikuspuntutik, Italiako hiri guztietan garatu baitzen azkar, eta bai kopuruaren aldetik ere, 1.100.000 kide baitzituen 1945ean. Indar nabarmena zuen iparraldeko langile-hirietan, eta etengabe ari zen hazten hegoaldean; horrela, alderdi berriaren kontsigna errealitate bihurtu zen oso denbora laburrean eta aurreikusitakoa baino emaitza hobearekin.

PCIren antolaketarako gaitasuna izugarria zen, ezbairik gabe Mendebalde osoko handiena, 1946an bi milioi kide baitzituen; paradoxikoki, ordea, gaitasun hori ez zen neurri bereko hauteskunde-indar bihurtu. 1946ko Italiako hauteskunde orokorretan eta urte bereko Italiako erreferendum instituzionalean parte hartu zuen, errepublikaren aldeko kanpaina eginez. PCI hirugarren geratu zen, Demokrazia Kristauaren (DC) eta Italiako Alderdi Sozialistaren (PSI) atzetik. 4.356.686 boto lortu zituen (ia %19), Italiako Batzar Konstituziogileko 104 kide aukeratzeko moduan. Errepublikak monarkia ordezkatzeari ekarri zuen herri erreferendumaren emaitzak, errepublikak botoen %54 lortu ondoren.

PCIren, PSiren eta DCren arteko lankidetzak ez zuen luze iraun gobernuan. Gerra Hotzaren hasierak erabat aldatu zuen nazioarteko oreka. 1947an, Estatu Batuek Marshall plana bultzatu zuten Europa berreraikitzeke, herrialde onuradunek boterean komunitarik ez izateko baldintzapean. Horrek

kanpoko presio handia eragin zuen Italian; izan ere, PCIk harreman estua zuen Sobietar Batasunarekin. DCk testuinguru hori baliatu zuen 1947ko maiatzean PCI eta PSI gobernutik kanporatzeko eta Italia Mendebaldeko blokearekin behin betiko lerrokatzeko.

Barne-mailan, PCIren eta langile-mugimenduen indar gero eta handiagoak beldurtu egiten zituen sektore kontserbadoreak, enpresa-erakundeak eta elizakoak. DCk polarizazio hori baliatu zuen PCI ordena demokratikorako mehatxu gisa aurkezteko, eta 1948ko hauteskundeetarako giroa prestatu zuen. DCk irabazi zituen hauteskundeak, AEBren eta Vatikanoren babes handiarekin. PCI ez zen inoiz Italiako Gobernura itzuli.

Togliattik eta Gramscik 1919an honako hau idatzi zuten *Langile Demokrazia* testuaren hasieran: “Egun, premiazko arazo bati egin behar dio aurre langile klaseak eta klase horren kontzientzia kritikoa eta aktiboa ordezkatzeko duen alderdiari dagokion ardura historikoaren zentzu bizia duen edozein sozialistak. Nola menderatu gerrak abiarazitako indar ikaragarriak? Nola ordenatu, nola eman forma politiko egokia, eraketa politiko horrek bere baitan normaltasunez garatzeko eta etengabe integratzeko gaitasuna izan dezan, harik eta proletariotzaren diktadura hezurmamituko duen Estatu sozialistaren egitura bihurtu arte?”

Ezin dugu jakin Gramscik zer erabaki bultzatuko zituzkeen, baina egitate bat da Salernoko biraketa onartzea iraultza sozialistari uko egitea izan zela, eta hurrengo bi hamarkadetan, Togliattiren gidaritzapean, PCIk sozialismoranzko bide italiarrean emandako lehen urratsa. ●



BIBLIOGRAFIA

Magri Magri, L (2011). *El sastre de Ulm: El comunismo del siglo XX. Hechos y reflexiones.*

Marchini, Aldo U. (1966). *The Italian Communist Party 1921-1964: A profile.*

Togliatti, P (1944). *The political situation in Italy.*

Tosi, Adele K. (1976). *The PCI Resurgent: 1943-1945.*

ALEMANIAREN OPOSIZIOA GERRAREN AURREAN

Testua — **Jon Larrabide**

Irudia — **Giorgio Spadari (1938-1977)**





Ekaineko borrokalariak, Komunako biktimak, Errusiako Iraultzaren martiriak: mamu odoltsuen zerrenda amaigabea. Ohorearen zelaian erori dira, Marxek Komunako heroiei buruz esan zuen bezala, langileriaren bihotz handian betiereko lekua hartzeko. Orain milioika proletario erortzen ari dira desohorearen, fratrizidioaren, autosuntsiketaren zelaian (...) Baina ez gaude galduta eta garaipena gurea izango da ez badugu ahaztu nola ikasten den. Eta proletarioen agintari modernoek ez badakite nola ikasten den, erori egingo dira, “mundu berriko arazoei aurre egiteko gai direnei lekua uzteko”.

Rosa Luxemburgo



Gerra, gerra, gerra. Gerra, gerra eta gerra gehiago. Gerra, gerra eta gero ere gerra. Egungo egoera historikoaz hitz egiteak, ezinbestean, gerrari buruz hitz egitea esan nahi du. Itxuraz, desintegrazio-prozesuan dagoen mundu dislokatu batean bizi gara. Dinamika sozialak etengabe ari dira eboluzionatzen, eta horrek talkak eta gatazkak urratutako atze-oihal moduko bat sortzen du. Badirudi aldaketak desoreka dakarrela, eta desorekak gerra, ikuspegi belikoari zein gizarte ikuspegiari erreparatuta. Nolanahi ere, hau ez da koiunturako gai bat, auzi historikoa baizik. Izan ere, eragile partikularrak eta haien *atrezzoa* aldatu arren, gizarte eraketa kapitalistaren garapen historiko osoa (ez modu eksklusiboan, baina bai espezifikoki) aldaketak, desorekak eta, ezinbestean, gerrak zeharkatzen dute. Eta modu horretan ageri zaigu ordu txikitán, etengabe korapilatzen diren tentsio eta kontraesan sozialen artean korapilatuta, balantzaka.

Horiek horrela, gai orokorrak duen gaurkotasunean eta kasu partikularrak pizten duen interesean babestuta, Alemaniako Alderdi Komunistak (KPD) gerraren inguruan izan zituen jarrerak eta posizionamendua errepasatu nahiko nituzke. Halere, hizketan hasi eta luzamendutan aritzeko ohitura orokortu eskasa izan dezake batek. Gainera, zaila da erlaziorik, konexiorik eta desberdintasunik egin gabe zerbaiti buruz hitz egitea. Testuinguratze ariketa egin eta koordenatu mapa bat ezartzeko ariketa da, beraz, gai bati heltzeko abiapuntua. Hala eskatzen du landu beharreko gai honek ere. KPDz hitz egiteak sozialdemokrazia alemaniarraz hitz egitea dakar, zehazki SPDz. Illo berean, KPDk gerraren aurrean izan zuen jarrerari heltzeak SPDren jarreraz hitz egitea eskatzen du. Izan ere, azken finean, sozialdemokrazia alemaniarren traizioaren kontakizunarekin korrelatiboa da KPDren sorrera. Haren aurka sortu eta garatu zen. KPDren historia oposizioa da, baldintzarik gabekoa, zentzurik hertsienean. SPDren aurkako oposizioa, gerraren aurkako oposizioa, gizarte kapitalistaren eta Pandoraren kutxa horretatik datozen izugarrikeria guztien aurkako oposizioa. Era berean, langile mugimenduaren historiaren orrietan erredentzioaren zain datzan martirio baten kontakizuna da.

PORROT BATEN HISTORIA

Alemaniano alderdi sozialdemokratak (SPD) II. Internazionalaren hastapeneko testuinguruan gertatzen ari zen antolakuntza politikoaren paradigma-aldaketa orokorraren amaiera irudikatzen du. Haustura politiko batetik zetorren garai bati buruz ari gara, haustura estrategiko zein lurraldekoa non, beharrak hartaratuta, espazio historiko bat eraiki asmo zen. Espazio horren gainean eraikiz joan ziren XIX. mendearen gainbeherako eta XX.aren sorrerako egitura politikoak. Masa-erakunde handiek, Langileen Nazioarteko Elkarreak bereizgarri zuen osaera heterogeneoaren gramatika politikoa gaindituz, sintesi sozial-demokratikoaren aldeko apustua egin zuten, gutxi gorabehera modu bate-ratuan (nahiz eta, kontakizunean zehar egiaztatu-ko dugunez, sintesi hori gako desberdinetan ulertu, fakzio ezberdinak egon, eta fakzio horiek elkarren artean lehiatu), eta estatuaz gaindiko isla lortu zu-ten II. Internazionallean, Internazional Sozialista izenez ere ezaguna den horretan.

Testuinguru horretan, SPDk berebiziko garrantzia hartu zuen garai hartako nazioarteko langile mugimenduari zegokionez. Lortu zituen eragina eta gidaritza-gaitasuna hiru maila nagusitan sailka daitezke, termino absolutuetan zein erlatiboetan aztergarriak hirurak ere. Lehenik eta behin, SPDk zuen militantzia zabalena nazioarteko panoraman, eta, gainera, antolaketa-sare oso zabal baten barruan antolatuta zegoen. Antolaketa horretan, alderdi, sindikatu eta gizarte-

**Sozialdemokrazia
alemaniarren
traizioaren
kontakizunarekin
korrelatiboa da KPDren
sorrera. Haren aurka
sortu eta garatu zen.
KPDren historia oposizioa
da, baldintzarik gabekoa,
zentzurik hertsienean**

Militarismoa (...) etengabe gerra ireki edo ezkutuan irauteak dakarren zorigaiztoko emaitza da, gizakiak gizakia esplotatzea oinarri duen sistemak eta klase borrokak gizarteari inposatua

bizitzaren esparru guztietako gainerako langile erakundeak zeuden, “bi munduen” ikuspegi sozialdemokratikoarekin bat etorritz. Hori, bere horretan, SPDren erreferentzialtasuna, eragina edo pisua nolabait justifikatzeko balioko lukeen egitatea da. Hala ere, garrantzi handiagoa hartzen du abagune politikoaren argitan baloratzen dugunean. Izan ere, analisiaren maila horrek barne hartzen duen ia mende Erdian, sozialdemokrazia alemaniarrek gorantz egin zuen hauteskunde eremuan, bai orokorrean, baita eremu sindikalean ere. Hori guztiz bat dator garaiko joera eta sinesmen orokorrarekin, arreta handia jartzen baitzuten botere parlamentarioa hautetsontzien eta “eguneroko lanaren” bidez gradualki jorratzean. Prozesu horrek profesionalizazio moduko bati eman zion bide. Azkenean, profesionalizazio hori bera bihurtu zen helburu, eta alderdi burokratizatu bat sortu zen, erreformen konkistan soilik zentratua. Alderdi horrek, sozialismoa lortzera bidean, masen artean posizioak irabazten jarraitzeko balio zuen. Hirugarrenik, SPDk mugimenduaren gidaritza teorikoaren lekukoa jaso zuen, batez ere marxismoaren eta II. Internazionalaren fundatzaileen arteko zubi-figuren bidez, hala nola Bebel edo Kautskyren bidez.

Era berean, SPD erakundea arduratu zen II. Internazionala bultzatzeaz; hain zuzen ere, nazioz gaindiko organo horren helburua zen proletariotzaren batasun operatiboa berreraikitzea, nazioarteko subjektu gisa. Inor ez du harritzen II. Internazionalak hasiera-hasieratik gerrarekin lotura handia izan zuela adierazteak. Joera historikoak apetatsuak baitira, II. Internazionalaren sorrera kokatzen den koordenatu mapa berean aurkitu zuen Internazionalak heriotza, hiru hamarkada geroago. XIX. mendearen amaierako hamarkadetan, mende bat baino gehiagora “inperialismo” terminoarekin izendatzen dugun metatze-prozesua gauzatu zen. Garapen kapitalista handiko garaia izan zen, eta lurraldetasunak eragin nabarmena izan zuen garai horretan, bai

inplikaturako eragileak mugatzeko edo definitzeko orduan, bai haien harremantzeko joeretan. Egoera historiko horretan, Internazionalak urrats sendoak eman behar izan zituen gerraren karakterizazioan, eta haren aurrean posizioa hartu behar izan zuen. Bruselan izan zen Internazionalaren Bigarren Biltzarren ebazpena (Wilhelm Liebknecht SPDren lider eta fundatzaileak idatzia, Édouard Vaillantekin batera) modu honetan mintzo da gerraz: “Militarismoa (...) etengabe gerra ireki edo ezkutuan irauteak dakarren zorigaiztoko emaitza da, gizakiak gizakia esplotatzea oinarri duen sistemak eta klase borrokak gizarteari inposatua”.

Adierazten duenez, “militarismoa abolitzera eta nazioen artean bakea ezartzera bideratutako ahalegin guztiak utopikoak eta hutsalak baino ezin daitezke izan gaizkiaren iturri ekonomikoak aldatzen ez badituzte”. Era berean, “gerra orokor bat saihesteko bitarteko bakarra sozialismoaren garaipena” dela adierazten du, eta dei egiten die “langile guztiei (...) gerra-nahi guztien aurka eta gerrari mesede egiten dioten aliantzen aurka” azaltzera.

Tesi horrek Internazional Sozialistak hurrengo urteetan garatu zuen diskurtsoaren eta ekintza politikoaren oinarriak finkatu zituen, zeinen egokitasuna berretsi egin zen (sakonduz eta zehaztuz, aldi berean) hurrengo urteetan antolatu ziren biltzarretan, hala nola Zurich, Londres, Paris eta Stuttgartekoetan. Horietan guztietan, sozialdemokrazia alemaniarreko kideek lehen mailako papera izan zuten txostenak aurkezten, ebazpenak idazten, zuzenketak proposatzen eta eztabaidetan parte hartzen. Rosa Luxemburgek *Juniusen liburuxkan* adierazi moduan (geroago itzuliko gara horri buruz hitz egitera), “Alemaniako sozialdemokrazia proletariotza kontzientearen erakundeen harribitxia zen. Frantzia, Italia eta Belgikako sozialdemokraziek, Holanda, Eskandinavia, Suitza eta Estatu Batuetako langile mugimenduek, ilusioz beterik jarraitzen zioten. (...) Bigarren Internazionalean, Alemaniako

sozialdemokrazia zen faktore erabakigarria, zalan-tzarik gabe. Biltzar bakoitzean, Internazionalaren Buro Sozialistaren osoko bilkura bakoitzean, talde alemaniarren jarreraren arabera zen beste dena”. Gainera, ez zen soilik propaganda-posizionamendu hutsa, tesi hori ekintzara zuzenduta baitzegoen formulaziotik bertatik (gaitzespenak eta ekintza zehatzetarako proposamenak jasotzen ziren bertan), eta, ondoren, borroka-kanpaina zehatzetan garatu zen, nazioarteko agertokiak Gerra Handirako bidean eztanda egin ahala.

Nolanahi ere, gauzak aldatzen hasi ziren une erabakigarria hurbiltzen zen heinean. II. Internazionalako liderren traizioa ezin da azaldu, noski, SPDren sorreratik bertatik presente zeuden joeren eta arrakalen garapenari erreparatu gabe (izan ere, ezinezkoa da garai hartako langile mugimenduaren egoeratik eta haren ezaugarrietatik bereiztea). Posizionamendu bakoitzak, azken batean, planteamendu estrategiko orokor bati erantzuten dio, bai eta koiunturari zuzenago erantzuten dioten aldeketa edo eraldaketa politiko batzuei ere. Esan liteke kasu honetan prozesuak hiru faktore nagusiri erantzun ziela: lehena, argitasunik ez izatea printzipio politiko orokorrenetan (errealitatearen analisiaren eta horri aurre egiteko moduaren arteko bereizketa ezartzen da); bigarrena, koiuntura historiko espezfiko bat (kapitalismoa goranzko fasean zegoen, batez ere Alemanian, eta hortik eratorri zen “ultrainperialismoaren” ideia, adibidez, eta hartatik jaio zen klase ertaineko geruza gero eta ugariagoa, defendatu beharreko gotorleku bat aurkitu uste zuena lortutako ogi-apurretan); eta, hirugarrena, koiuntura eta bilakaera politiko jakin bat (non datuek eta hauteskundeetako eta sindikatuetao emaitzek gero eta esanahi handiagoa hartu zuten, eta gainerako

interpretazio posibleei gailentzen joan zitzaizkien).

Kontua da gauza batengatik edo besteagatik sozialdemokrazia alemaniarren zati baten jarrerak pixkanaka nazionalismorantz eta belizismorantz irristatzen hasi zirela, defentsari loturiko arrazoiak argudiatuta. Aipatu beharrekoa da prozesu hori alderdi barruko lehia baten moduan gertatu zela, eta, hartan, jarrera kontrajarriak eztabaidatu zirela. Hala eta guztiz ere, ideia edo arrazoibide horiek publikoki eta alderdiaren kongresu batean eztabaidatze hutsak, gutxienik, SPDren ordura arteko ildo eta ekintza politikoarekiko haustura adierazten du. Gustav Noskeren hitzak, Essengo Kongresuan esanak, argigarriak dira zentzu horretan: “Gure herria arrisku larrian badago, sozialdemokratek gogoz defendatuko dute beren aberria (...), ez baitira burgesia baino gutxiago abertzaletasunean (!)”. Nolanahi ere, zehazte aldera, jarrera ofizialak lehen aipatutako kongresuek ezarritako norabideari eusten zioten, alderdiak ekaitzaren aurreko hilabetee-tan izandako jarduera indartsuari eskerrak. Atera kontuak: gerra-kredituen bozketa baino hamar egun lehenago, Alemaniako gobernuak Errusiari gerra deklaratu baino astebete lehenago, alderdiak oraindik ere zera esaten zuen: “Alemaniako proletariotza kontzienteak, gizadiaren eta zibilizazioaren izenean, gerraren sustatzaileen aurkako protesta sutua egiten du”.

Aldeko 68 botorekin eta kontrako 14rekin, ordezkaritza sozialdemokratak aho batez erabaki zuen gerra-kredituen aldeko botoa ematea (botoaren diziplinari jarraituz), eta, hala, nazioarteko prozesu historiko bati bide eman zitzaion, “bankarrot” izenez ezagutuko zena



Gerraren agerpena ezin hobeto egokitu zen faktoreen konbinazio horretara, eta horrela hasi zen Rosa Luxemburgek “nazioarteko mugimendu sozialistaren historiako egun beltzenetako bat” izendatu zuen hori. Aukera politiko guztiek erasotzaileen eta erasotuen diskurtso manikeo eta makabroa zerabilten, aberriaren eta “batasun sakratuaren” defentsan gotortzeko. Nazioartean bakealdi baterako aukera desagertua zen, eta sozialdemokraten zuzendaritzak posizioa hartu zuen. Aldeko 68 botorekin eta kontrako 14rekin, ordezkaritza sozialdemokratak aho batez erabaki zuen gerra-kredituen aldeko botoa ematea (botoaren diziplinari jarraituz), eta, hala, nazioarteko prozesu historiko bati bide eman zitzaion, “porrot” izenez ezagutuko zena. Haustura atzeraezina izan zen, eta ondorio ezagunena III.

Internazionalaren sorrera izan zen; komunista, alegia. Nazioarteko prozesu horretan, aldi berean, haustura-prozesu erabatekoak piztu ziren garaiko alderdi sozialdemokratetan. SPDren kasua, berriz ere, eredu izan zen. Leninek ondoko hitzekin diosku: “Internazionalako liderrek sozialismoa traizionatu dute gerra-kredituen alde bozkatzuz (...) Sozialismoa egoera honetan badago, ohoregabetuta, erantzukizuna, batez ere, sozialdemokrata alemaniarrena da, II. Internazionalako alderdi indartsu eta itzal handikoena izanik”.

“Espartakistak” 1916ko martxoan sortutako fakzio sozialdemokrata ziren, eta Rosa Luxemburgek Juniusen liburuxkan garatutako tesian eta sozialdemokraziari kritika zituen oinarritzat. Alderdi barruko joera komunistaren hezurmamitzea irudikatzen zuten

OPOSIZIOA

Bozketa egin zuten arratsalde horretan bertan, horretan bertan, alderdiko hainbat kidek bilera egin zuten, besteak beste Rosa Luxemburg eta Franz Mehringek, egoera politiko berrian esku hartzeko helburuarekin (alderdi barruan garrantzi handia zuen militantea zen Mehring, aurreko belaunaldi bateko kide izateagatik eta bere maila politiko altu eta esperientziagatik). Nahiz eta gerra-kredituen alde bozkatzeko erabakiak SPDren barruan zeuden joera desberdinen arteko haustura ekarri *de facto*, joera horiek defendatutako jarrerak ezkonezinak zirenez, SPDren antolamendu-mailako desintegrazio-prozesua ez zen oraindik gertatu. Oposizioak printzipio eta bertigo sorta bati egin behar zion aurre, eta horrek eragotzi egin zion pauso bat aurrera ematea eta zatiketa burutzea. Alderdiaren oinarrietan eztabaida bat sortzeko itxaropena zegoen (nahiz eta eztabaida hori partzialki baino ez gauzatu), indar korrelazioan posizioak irabazteko helburuarekin, baina esperantza horrek ostrazismo politikoan erortzeko beldurrarekin egin zuen topo. Horrek harreman korapilatsu bati eman zion bide, aglutinatzailea izan zen oinarriek alderdiaren aparatu politikoa konkistatzea lehenesten zuen printzipio politikoa (printzipio horrek aurre egiten zion oportunismoarekin inolako zalantzarik gabe hausteko boltxebikeek zuten ikuspegiari, nahiz eta horrek alderdi berri bat sortzea esan nahi izan). Erabaki horrek propaganda- eta eztabaida-jarduera handia ekarri zuen (jarduera hori, batez ere, alderdi barruan garatu zen), eta urte pare bat iraun zuen, eta gero eta publikoagoa izan zen.

Nolanahi ere, une jakin batetik aurrera egoera jasanezin bihurtu zen. Alderdi barruan hiru fakzio nagusiak (gehiengoarena, zentristak eta ezkerreko erradikalak) elkarren artean gerra irekian egoteaz gain (azkenekoez ez zuten zalantzarik lehen bien jarrerak modu irekian kritikatzeko, eta lehenengoek ez zuten zalantzarik agintariekin lankidetzan aritzeko, azken biak zapaltze aldera), egoerak bi talde parlamentario sortzea ekarri zuen, eta, aldi berean eta modu paraleloan, oposizioak gorputz organizatibo autonomoak eskuratu zituen.

Errelatoaren une honetan, koiuntura historiko espezifikoa zein zen eta oposizioak bere jarduera zein baldintzataraz egokitu behar izan zuen adierazi beharra dago, haren aukerak eta potentziak mugatzen dituen markoa marrazten duten heinean. Lehenengo elementua oposizioaren barne-banaketan aurkitzen dugu; izan ere, gertaeren garapenak beharturik bateratuta zegoen arren, oso oposizioa zatituta zegoen jarrera kontrajarriak zituzten hainbat antolakundetan (lerro horietako bakoitzaren ordezkari nagusien arteko etengabeko kritika eta salaketa gurutzatuak horren isla dira). Horri gehitu behar diogu oposizioak oso joko eremu konplexuan garatu behar izan zuela bere jarduera, gerra-egoe-rak mugatuta kanpotik (praktikan, askatasun politiko eta ekonomikoak erabat ezabatzea ekarri zuen horrek, nahiz eta ordenaren alderdiek maniobra-tarte bat izan) eta, barnetik, berriz, “aberria etsaiaren aurrean defendatzeko” diskurtsoak Alemaniako sektore herrikoian lortu zuen errotze sakonak.

Hirugarrenik, SPDren barruko antolakunde minoritarioen konstelazio osoa zeharkatzen zuen antolaketa-ahultasuna dago, eta haren ondoriozko ahultasun efektiboa. Zuzendaritzak alderdiaren aparatua kontrolatzen zuen, zentzu hertsian ez ezik, zentzurik zabalenean ere (kontuan hartu Alemaniako sozialdemokraziak garatutako antolakuntza-sarea hedadura zabala); sindikatuek, erakundeek, komunikabideek... guztiek erantzuten zieten zuzendaritzaren mandatuei. Oposizioak, aldiz, babarrunak eltzetik atera behar izaten zituen, bai egituretan, bai bere jarduera gauzatzeko erabiltzen zituen tresnetan. Ez zuen alderdi propiorik izan geroagora arte –zatiketa gauzatu zen arte–, eta, orduan ere, gaitasun operatiboak murritzak zituen, gehiengoarenak baino askoz txikiagoak, bestela ere. Azken puntu horri dagokionez, aipatzekoa da oposizioko militanteei (komunistei, batez ere) nolako jazarpena eta errepresioa egin zien SPDko gehiengoaren fakzioak eta Alemaniako Poliziak. Horrek oposizioa bere jarduera politikoa klandestinitatean eta legez kanpo (edo legearen aurka) egitera eta aldiro bere burua berrasmatzera behartu zuen (izan ere, militanteak asko aldatzen ziren kartzelaldiengatik eta frontera joan behar izateagatik, eta itxi, bertan behera utzi edo legez kanpo utzi zizkieten agitazio plataforma ugari). Hori gutxi balitz bezala, garaiko sozialdemokraziaren koordenada taktiko zein estrategikoak ere kontuan hartzekoak dira; zehazki, arestian aipatutako Alemaniako sozialdemokraziarenak.

Denborarekin, oposizioa modu indibidualizatuagoan zehaztuz joan zen. Lehenik eta behin, zatiketa formalaren prozesutik igaro behar izan zuen, edo, bestela esateko, gehiengoak alderditik kanporatu. Kanporatze horretatik sortu zen USPD, Alemaniako Alderdi Sozialdemokrata Independentea. Alderdi hori saski-naski moduko bat zen, eta bertan amaitu zuten SPDren hondar politiko dibergente guztiek, nahiz eta horien arteko harremana konplexua izan, eta elkarrekiko nahigurarik gabea. Egoera

berri batean egon arren, espartakistek, beste behin, ez zuten oportunismoaren hondarrekin hausteko erabakirik hartu. “Espartakistak” 1916ko martxoan sortutako fakzio sozialdemokrata ziren, eta Rosa Luxemburgek *Juniusen liburuxkan* garatutako tesiak eta sozialdemokraziari kritika zituen oinarritzat. Alderdi barruko joera komunistaren hezurmamitzea irudikatzen zuten (nahiz eta jarrera hori soilik haiena ez izan), eta modu irmoenean eta irekienean alderdiaren ildo nagusiaren aurka agertu ziren elementuak biltzen zituen, aurkakotasun hori mobilizazioarekin eta espetxealdiarekin ordaindu behar izan bazuten ere. Haien tesiek koherentzia zuten tradizio sozialistaren doktrinarekin eta gerraren aurreko urteetako kongresuetan hartutako tesiekin. Jarrera argia eta gardena zuten: “Lotsatuta, desohoratuta, odoletan igerian eta lohia dariola: horrela ikusten dugu gizarte kapitalista (...) Eta orgia horren erdian, mundu mailako tragedia bat gertatu da: sozialdemokrazia alemaniarrek amore eman du”, irakur dezakegu *Juniusen liburuxkaren* hasierako hitzetan. Zentzu horretan, Alemaniako oposizioaren adierazpenik garbi eta zuzenenetako bat izan ziren. Espartakistek gerraren aurka izan zuten jarrera nekaezina argitasunaren eta gardentasunaren koordenatu berberetan hedatzen zen. “Friedrich Engelsek behin esan zuen: ‘Gizarte kapitalista dilema baten aurrean dago: sozialismorako aurrerapena edo basakeriarako erregresioa’. Zer esan nahi du ‘basakeriara itzultzeak’ Europako zibilizazioaren egungo etapan? (...) Une honetan nahikoa da gure ingurura begiratzea gizarte kapitalistan basakeriara itzultzeak zer esan nahi duen ulertzeko. Mundu gerra hau basakeriarako erregresio bat da”. Gerraren izaera estrukturala salatzen zuten, baita chauvinismoaren bandera faltsuaren ustelkeria eta defentsa nazionala ere. Baina, batez ere, bide-orri bat marraztu zuten: “Mundu gerra honek (...) Alemaniako proletariotza herriaren zuzendaritzara eramateko eginkizuna du, hasiera emateko kapitalaren eta lanaren arteko nazioarteko gatazka handiari, munduaren nagusitasun politikoa lortzekoari” (nahiz eta ez guztiz bat egin Leninek gerra inperialista gerra zibil bihurtzeko beharraz defendaturiko tesiarekin).

ETA HORRELA IRITSI ZEN 1917A

Eta horrela iritsi zen 1917a. Gertakari orokorren zein gerra-gertakarien bilakaerak fase historiko berri bat ireki zuen. Gerrak heriotza eta miseria pilatzen jarraitu zuen deskribaturiko gertakariek iraun zuten hilabeteetan zehar. Borrokan ziren herrialdeen egonkortasun soziala harizpi bakarretik zegoen zintzilik. Hainbeste, ezen Otsaileko Iraultzak garaitu egin baitzuen tsarren Errusia beldurgarri hura, eta urrian loriatsu altxatu baitzen iraultza sozialista. Jakina, gertakari horrek dantzan jarri zuen une hartako nazioarteko agertokia. Gerrari dagokionez, disolbatu egin zen alemaniarren guda-fronteetako bat. Errusiar iraultzaileek, boterea eskurarazi zien programarekin bat eginez, gerra bukatzearen alde egin zuten apustu. Maila politikoan, ordea, are oihartzun handiagoa izan zuten. Ez munduko proletariotza osoarentzat erreferentzia zirelako bakarrik, baizik eta, gerrak bezalaxe, eragile politikoak norbaiten alde jartzera behartu zituelako. Alemanian, dagoeneko ezarrita zeuden posizio politikoen jarraipena edo garapena besterik ez zuen ekarri horrek. Gehiengoak eta sindikatuak ordenari eusten ahalegindu ziren; baita zentristak ere, nahiz eta modu ez hain agerikoan (“Nola bukatuko da?”, galdetzen zion garai hartan Kautskyk bere buruari, “deskonposizio sozial eta politikoa, kaosean”). Edonola ere, koiuntura-aldaketa horrek erradikalen posizioa indartu zuen, langile mugimenduekin eta Alemaniako langile klasearekin zuten harremanean barne. Iraultza sobietarrak, osoko zuzenketa eginez, irmo inposatu zuen bere errealtatea. Haren existentzia hutsak baieztatu egiten zituen Alemaniako zenbait destakamentu komunistak defendaturiko tesiak, eta munduari erakusten zion posible zela norabide-aldaketa erradikal bat, atzean utziko zituen miseria eta heriotza, baita haiek sorrarazten dituen sistema ustela ere.



Aldeko 68 botorekin eta kontrako 14rekin, ordezkaritza sozialdemokratak aho batez erabaki zuen gerra-kredituen aldeko botoa ematea (botoaren diziplinari jarraituz), eta, hala, nazioarteko prozesu historiko bati bide eman zitzaion, “porrot” izenez ezagutuko zena

Komunistek berehala ekin zioten lanari. Otsaileko Iraultzaren oihartzuna bere horretan erabilgarria izan zen Alemaniako antolakuntza iraultzailearen agitaziorako. Apirilean, protesta, mobilizazio eta greba olde bat piztu zen, eta zenbait egunez astindu zuen Alemanian ezarritako barealdia (gutxi gorabehera 300.000 grebalari izan zirela kalkulatzen da). Ekainean, itsas armadako gizonen artean egindako lana bere fruituak ematen hasi zen, eta horrek tentsio sozialeko foku berri bat ireki zuen. Urritik aurrera, boltxebikeak gerraren kontrako eta iraultzaren aldeko tesiak zabaltzen hasi ziren soldadu alemaniarren artean. Nazioarteko elkartasunak Brest-Litovskeko negoziazioetan egin zituen ahalegin guztiak. Espartakistak 1918ko urtarrilean pasatu ziren ekintzara, bake orokorraren aldeko greba orokor baten deia egin zutenean. Negoziazio gogorren ondoren, oposizioaren barruko fakziorik erradikalenek grebarekin bat egitea erabaki zuten. Urtarrilaren 28an, hiriburuko kaleak hartu zituzten 400.000 grebalarik, zazpi puntuko programa baten bueltan mobilizatuz; puntu horien artean zeuden bakea lortzea trukean anxio eta indemnizaziorik gabe; adierazpen- eta bilera-askatasuna berrezartzea; enpresen desmilitarizazioa; eta Estatua maila guztietan demokratizatzea. Hegal erradikaleko antolakundeen arteko desadostasunen eraginez, ezin izan zen bide-orri argirik ezarri, eta greba, norabidea galduta, itzali egin zen, errepresio gogorragatik eta zuzendaritza politiko falta nabarmenagatik. Alabaina, azken hilabeteetako borroka-zikloa arrastoa uzten hasia zen. Etapa hura osatu zuten borroka-prozesuetan zehar metaturiko esperientziak, Errusian bezalatsu, herrialde osoan Langileen eta Soldaduen Kontseiluak sortzean gorpuztu ziren (hala ere, haien irismen eta ahalmena Errusiakoena baino txikiagoa izan zen, eta haietako asko SPDk kontrolatzen zituen, eta batzuetan baita dinamizatu ere).



Alemaniako gobernuak, praktikan, lurra jo zuen barne kontraesanen eraginez, eta botere egiturak orbangabe mantentzen ahalegindu zen gobernu sozialdemokrata

Eta horrela iritsi zen porrot militarra. Alarma guztiak piztu ziren. Alemaniar nazioa oso desegonkortuta zegoen arlo zibilean zein militarrean. Abagune perfektua zirudien. Ordea, militante iraultzaileek jasandako errepresioak are gehiago nabarmentzen zituen mugimendu iraultzaileak urteetan izanak zituen ahulguneak. Gazte iraultzaileen antolakundeak bakarrik erakusten zuen egoerari erantzuten ahalegintzeko behar adinako antolakuntza-indarra. Baina bazirudien iraultza ez zegoela itxaroteko prest, eta azaroan agertu zen nagusitasunez, goizegi alegia, beste hainbatetan bezala. Urriaren hasieran, honelako analisia egiten zuten espartakistek egoeraz: “Egoera iraultzaile bat, non berriz agertzen diren Alemaniako burgesiak 1848ko iraultzan ebatzi ezin izan zituen arazo guztiak”. Hala, gerraren kontrako programa argi bat prestatu zuten. Urriaren bukaeran, Liebknecht askatu zuten, zeina ordurako gerraren kontrako izarra baitzen bai masen artean, bai lubakietan. Milaka lagunek egin zioten ongietorria, Potsdamen. Gobernuaren eta Poliziaren kontrako ekintzak etengabe ugaritu ziren urriko azken egunetan. Baina fakzio erradikalaren zuzendaritza, masen indarrek hura garaitzeko arriskua gorabehera, ez zen ausartzen pausoa ematera, ez baitzegoen adostasunik jarraitu beharreko bideari zegokionez. Grebara jo zuten itsas armadako gizonak, mitin jendetsuetan enperadorearen abdikazioa eskatu zen, eta manifestazio zentraletarako deiak entzuten ziren. *Die Rote Fahne* egunkariak honakoa aldarrikatzen zuen: “Alemaniako iraultzaren hasiera da, munduko iraultzaren hasiera! Osasuna munduko iraultzaren ekintzarik boteretsuenarentzat! Gora sozialismoa! Gora Alemaniako Langileen Errepublika! Gora munduko boltxebismoa!”. Hasia zen Alemaniako iraultza.

Odolik isuri gabe, azaroaren 9rako sozialdemokraziaren esku zegoen gobernuua. Independentetek burua makurtu eta Eberten eskaintza onartzea erabaki zuten, hau da, koalizio gobernu baten bidez, sozialdemokraziak indarrez eustea erortzear zegoen Alemania hari. Espartakistak, jakina, gobernutik kanpo utzi zituzten.

Baina indar korrelazioa aldatzen hasi zen iraultzaren ondorengo hilabeteetan. Espartakistek argi ikusten zuten hasierako fase hura ez zela nahikoa izan: haustura-prozesua bururaino eraman behar zen, iraultza erreala egiteke zegoen. Egiazki, Alemaniako gobernuak, praktikan, lurra jo zuen barne kontraesanen eraginez, eta botere egiturak orbangabe mantentzen ahalegindu zen gobernu sozialdemokrata. Haren kezka nagusia espartakistak ziren, “aztoratzaileak” izateagatik eta haien programaren bidez botere burgesaren funtsezko egiturei eraso egin nahi izateagatik.

Gertakariak azken urteetako bide “normalen” barruan garatu izanak eta eragileek beste behin posizio berberak hartu izanak bestelako ondorio bat ekarri zuen oraingoan. Bukatzen ari zen USPDren barruko koexistentzia. Espartakistek kongresu bat deitzea erabaki zuten, eta antolakunde berri bat sortu zen hartatik, KPD (Alemaniako Alderdi Komunista), bat eginez Alemaniako Komunista Internazionalistekin, Bremeneko Taldearekin eta beste zenbait antolakunde iraultzaile minoritariorekin. Tesi argi eta zuzen bat zegoen sorrera horren oinarrian: “Alderdi autonomo berri bat eratu behar dugu (...) solidoa eta homogeneoa bere teorian eta borondatean; programa argi bat izan behar du, helburuak ezartzen dituen, bai eta mundu iraultzaren interesetarako balio duten bitartekoak ere”.

***Inperialismoaren
eta gerraren arteko
beharrezko harremanetik,
edo, hobeto esanda,
gerraren eta metabolismo
sozial kapitalistaren
arteko harremanetik,
bakearen eta iraultzaren
arteko beharrezko lotura
ondorioztatzen da. Ordena
ekonomiko, politiko eta
soziala suntsitzea eredu
berri bat eraikitzeko***

Aste odoltsuak behin betiko errematea eman zion iraultzari. Gobernu sozialdemokratak ordena nahi zuen beste ezeren gainetik, eta KPDk haragitzen zuen ordena haren kontrako mehatxurik handiena. KPDko kide batzuek langileen probokazio gisa eta Alemaniako Iraultzaren kontrako kolpe gisa interpretatu zuten Emil Eichhorn Polizia Independentearen prefektua kargugabetu izana. Irteerako pistola-tiroa izan zen. Mobilizazio deialdi hark izan zuen erantzun oparoak matxinada-giroa sortu zuen berriz hiriburuan. Radekek honela deskribatzen du: “Masek hain modu nabarmenean parte hartzen zuten manifestazioetan, ezen egun horietan ezinezkoa izango baitzen Berlinen boterea hartzea”. Ordea, zerbaitek kale egin zuen berriz. KPDk ez zuen lortu prozesuaren abangoardian kokatzea; ez zen zuzendaritza-gaitasunik izan, ezta zuzendaritza edo proiektzio argirik ere. Gobernu sozialdemokratak errepresioa koplarik gabe erabili izanak urkatu egin zuen garapenerako proiektzio edo aukera oro. Mugimenduak burua galdu zuen Alderdi Komunistaren lider nagusiak espetxeratu edo erailtzearekin (Rosa Luxemburg eta Karl Liebknecht, kasu).

Azken kapitulu horrek ixten du KPDri buruzko kontakizuna.

ONDORIO OROKORRAK ETA ITXIERA

Kapitalaren, imperialismoaren eta gerraren kontrako historia da Alemaniako Alderdi Komunistaren historia. Horixe da haren izateko arrazoia eta existentzia-esparrua. Haren existentziak oposizio hori gorpuzten du. Fase imperialistak gerraren posibilitatea jartzen du mahai gainean. Elkarren kontrako kapital blokeak lehia sutsuan ari ziren, munduko merkatu handian gero eta koilara handiagoak eman ziezaien jaten. Imperialismoaren eta gerraren arteko beharrezko harremanetik, edo, hobeto esanda, gerraren eta metabolismo sozial kapitalistaren arteko harremanetik, bakearen eta iraultzaren arteko beharrezko lotura ondorioztatzen da. Ordena ekonomiko, politiko eta soziala suntsitzea eredu berri bat eraikitzeko, zeinak, printzipio antagoniko batzuekin gidaturik, behin betiko itxiko baititu Pandora-kutxa eta haren izugarrikeriak.



Alemaniako komunistek beti izan zuten garbi, eta erabakimenez eta sakrifizio handi baten kontura heldu zioten historiak haien aurrean jarri zien zereginari. Gerrak, berriz, Alemaniako sozialdemokraziaren eremuak argitu zituen, eta komunistek posizio argi bat hartzea erabaki zuten. SPD, II. Internazionalaren gotorleku nagusi izana, burgesia-
ren lamina-kantuek horditurik, militarismoaren, chauvinismoaren eta kontrairaultzaren bandora igaro zen. Garai hartako eraikin politiko handiena ez zen gai izan modu eraginkorrean borroka egiteko komunismoaren gaixotasun degeneratiboaren –oportunismoaren– kontra, nahiz eta indar operatibo handia, gaitasun teoriko altuak eta masa-eragin zabala zituen. Eraikin hori gainbehera erori zen, modu eta norabide jakin batean. Komu-

nistek, aldiz, zailtasun guztien kontra borrokan jarraitzea erabaki zuten. Haize guztiak zituzten kontrari ikaragarritzko zeregin hura betetzeko. Ordea, gidaritza argiz (gaitasun operatiboei, teknikoei eta abangoardiakoei dagokienez) altxatzeko ezintasuna kostu handiegia izan zen haientzat, ordainezina. Sozialdemokrazia arduratu zen gainerakoaz, eta errepresiorik bortitzenaren erdian eta atzera egiteko testuinguru batean, militante haiek zuten guztia guda-zelaian uztearen aldeko apustua egin zuten. Hori horrela, komunista alemaniarrak lehenbizikoak izan ziren, nolabait esateko, gidariak munduko proletariotzarentzat; oraindik ere, bakarrak izaten jarraitzen dute, eta zera aldarrika dezakete boltxebikeekin batera: “Ni ausartu nintzen”. ●

Aberriaren Gerra Handiaren garapen politikoa Sobietar Batasuneko Alderdi Komunistaren barrenetik

Texto — **Aimar Nuñez**

Irudia — **Amaiur Ruiz, Iruñe Juangarcia
& Ekhiotz Arbe**



Bigarren Mundu Gerra SESBeko Alderdiak zuzendu zuen irmotasunez eta, aldi berean, pragmatismoz. Sozialismo ekonomikoa eraikitzeko premiak zuhurtasunez jardutera behartu zuen Sobietar Batasuna gerra hasieran eta gerra aurretik. Bestalde, gerraren garapena zela eta, beharrezkoa zen komunismoarekin zerikusia zuen oro suntsitzeko prest zegoen erakunde deitoragarri bati aurre egiteko moralki gertu zegoen armada bat. Hori dela eta, nazioarteko komunismoak hartu zuen deribarekin bat egiten zuen kanpaina nazionalista bat gauzatu zen. Jarraian, gerraren zein aurreko hamarkaden garapena azalduko da, Sobietar Batasuneko Alderdi Komunistaren (KPSS) bilakaerarekin eta funtsezko erabakiekin batera.

SOZIALISMOA HERRIALDE BAKARREAN ETA FAXISMOAREN GORAKADA

1920ko hamarkadan, ezabatu egin ziren komunismoak Europan irabazteko aukerak. SESBek *Kontinente Zaharrean* egindako inbertsioak ahuldu egin ziren elementu sozialchauvinistaz erabat kutsatutako sozialdemokrazia errebisionistak langile-klasea traizionatu zuenean; izan ere, azken horrek etorkizun itxaropentsu baina funtsean ezinezko bat erakutsi zion langile-klaseari, kapitalismoaren kontraesanak berehala azaleratuko baitziren berriz. Hori dela eta, SESBek komunismoa hedatzeko zuen misioa atzeratu egin behar zen, eta sozialismoa herrialde bakarrean eraikitzea bihurtu zen funtsezkoa, sistema kapitalistaren aurka balio zezan, une horretan berreraikitzen ari baitzen. Nolanahi ere, kontakizun aldaketa honek, azkenean, helburua SESB bera zela eman zuen ulertzera.

Testuinguru horren baitan, Komiternaren 1927ko VIII. osoko bilkurarekin bat eginez, KPSSk –Stalinen gidaritzapean– adierazi zuen nazioarteko langile mugimenduarentzat auzi premiazoena Sobietar Batasunaren aurkako gerra bat izan zitekeelako arriskua zela. Gerra antikomunista baten mehatxua gero eta handiagoa zen, eta Alemania aliatuak bilatzeko Mendebaldean egiten ari zen saiakerek argi erakusten zuten iragankorrak zirela Rapalloko Hitzarmeneko politikak. Hori dela eta, Mendebaldeko sozialdemokraziek bultzatutako armagabetze kanpainen aurkako kritika irekia egin zuen KPSSk; izan ere, haren ustez, alferrikakoak ziren, eta beren bultzatzaileak “sozialinperialista” bihurtzen zituzten.

Komiternaren VI. biltzarrak 1928an ondorioztatu zuenez, gerra kontrairaultzaile bat egonez gero, taktikak argia izan behar zuen: munduko proletarioek euren gobernuen porrotaren alde borrokatu behar zuten, eta beren jarduna SESBek zehaztutako estrategiara subordinatu. Armada Gorria babesteko eta sobietar lurraldeen baitan bakeari eusteko bete-beharra ezarri zen, hura armatzea eta haren industria garatzea errazteko helburuarekin. Ordudanik, KPSSk gerra inperialistaren aurkako makineria propagandistiko handi bat jarri zuen martxan.

1920eko hamarkada bukaerako krisi globalaren erdian, Alderdiak “klasea klasearen aurka” estrategia sustatu zuen, eta, haren bidez, ofentsiba fase bat proposatu zuen, Europako langile klasea faxismoaren aurka batzeko, baina alderdi sozialdemokratak sozialfaxistatzat kategorizatuta. Estrategia hori indarrak fronte bakarrean bateratzean zetzan, baina sozialdemokraziarekin hautsi beharra ezartzen zuen aurrebaldintza gisa. Betebeharrak argi zeuden: faxismoaren aurka eta *aberri sozialistaren* alde batzea. SESBek irabaztea zen helburua, eta kontrairaultzailetzat hartuko zen edozein desbideratze. Alabaina, emaitzak ez ziren esperotakoak izan, eta, fronte antifaxista masibo bat baino gehiago, joera sektarioa ekarri zuen.

Paraleloki, “sozialismoa herri bakarrean” teoria Stalinek gauzatu zuen Trotskiren “etengabeko iraultza” teoriari kontrajarriz, zeina ordurako ahulduta baitzegoen. Bi korronteen arteko tentsioa handitzen joan zen, harik eta 1927an bai Trotski eta bai Zinoviev (Stalinengandik urruntzen joan zen) Alderditik kanporatu zituzten arte. Une haren eraginez, estalinismo deiturikoa leninismoaren jarraipen gisa determinatu zen, Trotskik ukapen thermidoriantzat jo zuen arren.

Stalinek hazkuntza industrialeko, etxaldeko kolektibizazioko eta “deskulakizazioko” garai bat hasi zuen, SESBen gaitasunak Alemania nazia garaitzeko gai izateraino handitzeko helburuz, eta, horretarako, industria astunaren garapena lehenetsi zuen arinaren kaltetan; horrek ondorio nabarmenak izan zituen biztanlerian. SESBeko biztanleen errenta %86 eta %110 hazi zen lehen bi bosturteko planetan, eta hirugarrean ere handituz joan zen, gerraren hasierak igoera hori eten zuen arren.



GERRA AURREKO KANPO HARREMANAK: 30EKO HAMARKADA


1930eko hamarkadan zehar, Sobietar Batasunak dinamika bikoitza izan zuen kanpo-politikari dagokionez. Batetik, nazioarteko harremanak hobetzen saiatu zen, elkar ez erasotzeko itunak sinatuz besteak beste Turkiarekin, Persiarekin, Baltikoko herrialdeekin eta Errumaniarekin. Politika horren helburua Urriko Iraultzaren osteko isolamendu diplomatikoa amaitzea zen. Testuinguru horren baitan, Estatu Batuek diplomatikoki onartu zuten SESB 1933an, eta hura Nazioen Ligan sartu zen 1934an. Hala ere, ekimen horiek bigarren planoan geratu ziren bosturteko planak abiaraztean, SESBek industrializazio bizkorrera eta barne boterea indartzera bideratu baitzituen bere ahaleginak.

Aldi berean, tentsio gorakorreko giroa eragin zuen komunismoaren aurkako jarrera nabarmena zuten potentziak sendotu izanak, hala nola Alemania nazia, Italia faxista eta japoniar inperialismoa. 1933an, Hitlerrek boterea hartzearekin batera, kanpaina antikomunistak hasi ziren. Lehen urteetan Alemaniaren eta SESBen arteko harreman ekonomikoa nahiko egonkor mantendu baziren ere, mehatxu ideologikoa indartu egin zen gerora.

1935etik aurrera, Alemaniarekiko tentsioak handitu ziren. Orduan, sobietar politikak norabidea aldatu zuen, eta nazioarteko batasun antifaxista bat eratzen hasi zen, Europako alderdi sozialistekin batera Herri Fronteak sustatuz, estrategia interklasista baten baitan.

Mendebaldeko sozialdemokraziek bultzatutako armagabetze kanpainen aurkako kritika irekia egin zuen KPSSk; izan ere, haren ustez, alferrikakoak ziren, eta "sozialinperialista" bihurtzen zituzten beren bultzatzaileak








Kanpo mehatxu gorakor baten testuinguruan, KPSSk Estatu sozialistaren papera birformulatu zuen, eta Alderdian, bitartean, eztabaidagai bihurtu zen Estatu sozialistaren existentzia bera. 1938ko diskurtso batean, Stalinek dogmatismoa ukatu zuen, eta defendatu zuen setio kapitalistaren aurrean Estatuari indartsu eutsi behar zitzaiola, egoera konkretuaren analisi konkretua eginez. Posizionamendu hori justifikatzeko, nabarmendu zuen Estatua funtsezkoa zela bai hezkuntza sozialistarako eta baita sozialismoaren eraikuntza ekonomikorako ere. Norabide hori berretsi egin zen KPSSren XVIII. biltzarrean.

Era berean, Internazional Komunista (Komiter-na) ahuldu egin zen. 1929 eta 1943 artean, Munduko Biltzar bakarra egin zen, eta KPSSk gainerako alderdi komunistak gidatzeko erabiltzen zuen erre-minta mediatiko bihurtu zen Komiterna. Hori kri-tika iturri izan zen, batez ere trotskisten aldetik, iritzi baitzioten erakundeak utzia ziola benetako nazioarteko estrategia iraultzaile bat ordezkatzeari. Bitartean, Internazional Sozialistak batasunik ga-be eztabaidatzen zuen faxismoaren funtsaren ingu-ruan, inolako aurrerapausorik eman gabe. Vander-veldek, besteren artean, faxismoa Europa ekialdeko herrialde azpigaratuen berezko fenomeno zela ka-tegorizatu zuen.

1935etik aurrera, sobietar politikak norabidea aldatu zuen, eta nazioarteko batasun antifaxista bat eratzen hasi zen, Europako alderdi sozialistekin batera Herri Fronteak sustatuz, estrategia interklasista baten baitan



Hogei urte lehenago Internazional Sozialistak gerraren aurrean izan behar zuen zereginaren inguruan izandako eztabaida hura, garai hartan, faxismoaren aurrean hartu beharreko jarrerari buruzkoa izatera igaro zen. Nolanahi ere, emaitzak berak izan ziren: gaitasun eza eta dekadentzia, langile klasea suntsitzera zatorren fenomeno baten aurrean.

GERRA: HASTAPENAK ETA INTERPRETAZIOA

Faxismoaren mehatxua handitzen zen bitartean, Frantziak eta Erresuma Batuak baketze politika bat sinatu zuten, eta lehenik Austria eta ondoren Txekoslovakia okupatzeko bide eman zieten naziei.

Ziurtasunik ez zen eta Mendebaldeak konpro-misorik ez zuen testuinguru horretan, SESBek eta Alemaniak elkarri ez erasotzeko itun bat sinatu zuen 1939ko abuztuan (Ribbentrop-Molotov ize-nez ezaguna). Egun batzuk beranduago, Alemaniak Polonia inbaditzearekin batera, Bigarren Mundu Gerra hasi zen, eta, jarraian, Sobietar Batasunak herrialdearen ekialdea okupatu zuen. Aipatutako itunaren ondorioz, SESBek Baltikoko herrialdeak, Besarabia eta Bukovina ere anexionatu zituen, eta borrokak izan zituen Finlandiarekin eta Japoniare-kin. Komunismoaren mehatxua mahai gainean ze-goen, eta horren aurrean prestatu beharra zegoen.

Ikuspegi teorikotik, gerra piztu izana 1914an be-zalatsu interpretatu zuen KPSSk: gerra erreakzio-nario eta inperialista bat, zeinetan langile klaseak ez zuen parte hartu behar. Irakurketa horren ara-bera, Frantzia eta Ingalaterra ez ziren demokrazia-gatik edota herrien askatasunagatik borrokatzen, baizik eta euren dominazio inperialista manten-tzearren. Marko horren baitan, komunistek euren gobernuen aurkako propaganda egin behar zuten, ez haiek babestu.

Beranduago, kontakizuna aldatu egin zen: baie-ztatu zuten gerra hasieratik izan zela antifaxista, eta SESB hartara batzeak izaera hori indartu baino ez zuela egin. Modu horretara, aurreko urteetan so-bietarrek Alemaniarekin izan zuten politikaren fa-se pragmatikoak justifikatzen zituen narratiba bat finkatu zuten, eta berrarmatzea funtsezkoa zela ar-gudiatu. Hortaz, KPSSk definitu zuten kontraesan kapitalistetatik bereizi ezin den elementua zela ge-rra, baina kapitalismo kritikoaren aurpegietako bat baizik ez zen elementu sozioekonomiko bat zuena: faxismoa.

BARBAROSSA OPERAZIOA ETA ALDERDIAREN BERRANTOLAKETA

Ondorengo lerroetan, Alderdiak gerran zehar izandako garapena eta Mendebaldeko historiogra-fiatik eta historiografia trotskista edo khrustxovia-rretik eratorritako zenbait mitoren atzean dagoen errealitatea uztartuko dira.

Alemaniak aurrera egiten jarraitzen bazuen ere, Frantziak eta Erresuma Batuak SESBen gaitasun militarra gutxiesten jarraitzen zuten, baita alema-niarrek Austria eta Txekoslovakia okupatu ondoren ere. Diplomazialari britainiarren hitzetan, SESB “gaitasun militar eskaseko” potentzia gisa ikusten zuten. Hitlerrek eta haren ingurukoek ere berdin gutxiesten zuten. Führerrak berak Bulgariako di-plomazialari bati Armada Gorria “irrigarria” zela esan zion. Kontrara, hori pentsatzea akats estrate-giko ikaragarria izan zen. Goebblesen egunerokoak erakusten duenez, sobietar makineriak ez zuen erresistentzia bakarrik egin, baizik eta mobiliza-zio nazional izugarria lortu zuen, bai militarra, bai zibila.

Barbarossa Operazioa kolpe handia izan zen Al-derdiarentzat; izan ere, prestaketa lanetan bazebi-len ere, ekialdeko frontearen leherketa atzeratzen zen egun bakoitza onuragarri zitzaion. 1939an, Al-derdi Komunistak bederatzi hegazkin fabrika handi eraiki zitzaaten agindu zuen eta, 1941erako, SESBek 2.700 hegazkin moderno eta 4.300 tanke inguru zi-tuen. Gerrarako prestaketa industrial, egiaz, inter-pretazio khrustxoviarrek zioenaren kontrara, askoz lehenagotik zetorren.

Ofentsiba faxista hasi bezain laster, Stalinek 11 orduko bilera bat gidatu zuen, eta, ondorengo egu-netan, Alderdiak gerraren kudeaketarekin lotuta-ko auzi ororen kontrol zuzen eta xehea hartu zuen. Erabaki estrategikoak zein xehetasun txikiak izan zituzten eztabaidagai, adibidez *Pravdan* argitaratu-tako artikuluen izenburuak. Sobietarren erantzuna azkarra izan zen: inbasioa hasi aurretik, maiatzetik ekainera bitartean, 800.000 erreserbista mobiliza-tu zituzten. Eta eraso gertatu eta bi egun eskasera, Ebakuazio Komitea martxan jarri, eta 1.500 fabrika handi baino gehiago eraman zituzten ekialdera; lo-gistika prozesu erraldoia zen, aste batzuk lehen-a-go hasia. Ahalegin horiek posible izan ziren, hain zuzen, Uraletan, Siberian eta Kazakhistanen gune industrial berri bat egiteko proiektua egin zuelako Alderdiak, kanpo erasoei eusteko eta deszentrali-zatzeko estrategia baten barruan.

KPSSk definitu zuen kontraesan kapitalistetatik bereizi ezin den elementua zela gerra, baina kapitalismo kritikoaren aurpegietako bat baizik ez zen elementu sozioekonomiko bat zuena: faxismoa

Alderdia berrantolatu egin zen. Estatuaren defentsarako kuartel nagusi bat ezarri zuen, Stalinek gidatuko zuena eta zuzenean koordinatuko zena Estatuko Defentsa Komitearekin eta Kontseilu Militarrekin. Hortik, Armada Gorriaren mugimendu estrategikoak ez ezik, kudeaketa industrial, frontearen morala eta biztanleen mobilizazioa ere antolatu ziren. Komosomol erakundeak, hau da, Alderdiaren gazte antolakundeak, 1941ean soilik, 95.000 militantetik gora bidali zituen frontera, entrega eta diziplina indar eredugarri moduan. Komite Zentraleko kide garrantzitsuak ere frontera joan ziren operazioetan zuzenean parte hartzeko, zuzendari-tzaren erabateko konpromisoaren erakusgarri.

Alderdiaren egiturek egokitze gaitasun harri-garria erakutsi zuten. Fakzio lokalek etenik gabe jarraitu zuten, baita borroka zuzeneko guneetan ere, hala nola Ukranian, Bielorrusian, Moldavian edota Baltikoko errepubliketan. Eskualde-, udalerrri- eta distritu-komiteek modu aktiboan hartu zuten parte erreserbistak mobilizatzen, gotorlekuak eraikitzen edota biztanleak eta baliabideak ekialdera ebakutzen.

Dinamika horren alderdi esanguratsuenetako bat izan zen etengabe arduratu zirela armadaren moralaz. KPSSko zuzendaritzak bazekien erresistentzia ezin zela baliabide materialen bidez soilik mantendu, baizik eta konbikzio ideologiko sendoak behar zirela. Horretarako, propaganda eta agitazio politikorako organoak berrantolatu zituzten, eta frontean komisario politiko militarren figura ezarri zuten, fronteko kideen artean moral altuari eta Alderdiarekiko zuten konfiantzari eusteko. Alabaina, aldaketa erretoriko nazionalista funtsezko elementu ideologiko bat izan zen; zentzu horretan, “heroi nazional” errusiarrak berpizteaz gain, *aberriatatik* egin zuten borroka, eta horri elementu eta termino nazionalista ugari gehitu zizkioten, etorkizunean internazionalismo proletarioa garatzeko potentzialki kaltegarriak izango zirenak.

Ahalegin integral horrek guztiak Alderdi Komunistari aukera eman zion arrisku handiko une hartan kontrola mantentzeko, erresistentzia bultzatzeko eta moral kolektiboa indartzeko. Alderdiak gizarte osoa mobilizatzeko izan zuen gaitasuna funtsezkoa izan zen alemaniarren lehen kolpeari eusteko (galera ikaragarriak izanagatik ere) eta baita, geroago, kontraerasora igarotzeko ere.

ALEMANIAREN OFENTSIBA

Hitlerren hasierako estrategia frontean gudu erabakigarri bakar bat eragitea izan zen, sobietar boterearen gehiengoa kolpe bakarrez suntsitzeko helburuarekin. *Blitzkrieg* deitu zioten. Jeneral sobietar batzuek onartu egin nahi izan zuten hasiera batean, baina KPSS ez zen tranpan erori.

Sobietarren defentsarako antolaketa taktikoak erresistentzia eta egokitze gaitasun ikaragarria erakutsi zuen hasieratik, nahiz eta batzuetan garaitua izan mugikortasunari dagokionez. Besteak beste Smolensk, Leningrad, Kiev, Odesa eta Sebastopol hiri garrantzitsuek defentsa eredugarria izan zuten. Leningrad etengabe irismen luzeko bonbez bonbardatzen zuten bitartean, milaka langilek gotorlekuak eraikitzen lan egin zuten gau eta egun, eta ia menderaezin bihurtzea lortu zuten. Kiev azkenean abandonatu egin behar izan bazuten ere, luzaroan defendatu zuten, eta horrek ikaragarri zaildu zituen alemaniarren planak. Odesan 100.000 langilek baino gehiagok hartu zuten parte defentsak eraikitzen Sebastopolera lekualdatu aurretik, eta han egoerak eskatzen zuen mailan erantzun zuen erresistentziak. Defentsa horiek guztiek, porrotean bukatu ziren arren, Alemaniaren planaren eraginkortasuna deuseztatu zuten.



Sobietarren defentsarako antolaketa taktikoak erresistentzia eta egokitze gaitasun ikaragarria erakutsi zuen hasieratik, nahiz eta batzuetan garaitua izan mugikortasunari dagokionez

*Blitzkrieg*aren porrotak biraketa estrategiko bat eragin zuen gerran. Alemaniaren aurrerapena atzeratzeaz gain, Sobietar Batasunari bere ekoizpen militarra berrantolatzea eta defentsan sakontzea ahalbidetu zion.

Momentu erabakigarrienetako bat 1941eko urrikoa izan zen, Moskuren setioan. Uztaileako, Alderdiaren udal fakzioek herri boluntarioen dibisioak eratu zituen, eta 120.000 kide baino gehiago bildu zituen, horietatik ia erdiak Alderdiko edo Komso-moleko kideak. Berrogeita bi mila lagun batu ziren aireko defentsa indarretara eta hiriko destrukto-reen batailoietara. Guztira, defentsan milioi erdi biztanlek parte hartu zuten zuzenean. Alderdiaren Moskuko eskualde-fakzioak, ekoizpena martxan mantentzeaz gain, tropak eta biztanle zibilak hornitzeko lanak ere bete zituen. Bestalde, Alderdiak Uraletan, Siberian, Volgan, Asia Erdialdean eta Kaukason zituen fakzioek hiriburura erreserbak eta ekipamendua etengabe iristea ziurtatu zuten.

Setioa jasanda ere, boltxebikeek ez zuten amore eman. Instituzio asko badaezpada ere ebakatu zituzten arren, Komite Zentralaren Politburoa, Gobernu Sobietarra, Estatuko Defentsa Komitea eta Kuartel Nagusia hiriburuan mantendu ziren, modu eredugarrian. 1941eko azaroaren 6an, bere ohiko biltzarra egin zuen Moskuko Diputatu Langileen Sobietak, Alderdiko eta herri fakzioetako ordezkariekin batera. Biharamunean, Armada Gorriak urteroko desfilea gauzatu zuen, Urriko Iraultzaren urteurrenean urtero egiten zuen moduan. Moskuk eutsi egin zuen, eta nazien planak zapuztu egin ziren.

Bitartean, zona okupatuetan, Alderdiak erresistentzia partisanoa antolatu zuen. Ukrainan, Bielorrusian, Moldavian eta Baltikoko herrialdeetan etsaiaren aurkako kolpeak antolatu zituzten eten-gabe. Komite Zentralak komisio berezi bat sortu zuen lan hori erretagoardiatik zuzentzeko. Partisanoek agintari okupatzaileen neurri politiko eta ekonomikoak sabotatu zituzten, ondasunak Hitlerren Alemaniara eramatea galarazi zuten, eta etsaiaren giza baliabideak eta material belikoak suntsitzen lagundu zuten. Alderdiaren antolakunde klandestinoek antolatu eta zuzendu zituzten mugimendu partisanoa eta zona okupatuetan sobietar herriak inbaditzaileen aurka gauzatutako borroka. Fakzio horien buruak Alderdiko eskualde-komiteetako 26 idazkari eta udalerrri- eta distritu-komiteetako 539 idazkari ziren.

1941eko abenduan, sobietarren kontraerasoa hasi zen. 1942ko otsailerako, Armada Gorriak etsaia 400 kilometro bultzatu zuen mendebalderantz, eta, horrela, libre utzi zituen Mosku eta Tula, baita Kalinin, Leningrad, Orel eta Smolensk eskualdeetako distritu batzuk ere. Hala, Wehrmachtaren garaiezintasunaren mitoa hautsi zen. Leninek baieztatu zuen moduan, morala erabakigarria izan zitekeen: nazien gailentasunaren aurka, kolpe militarra bezain garrantzitsua izan zen kolpe sinbolikoa.

Plano diplomatikoari dagokionez, isolamendu bortitz baten arriskuari aurre egin behar zion SESBek. Mendebaldeko potentzien eta Alemania naziaaren arteko koalizio bateratu baten aukera benetakoa zen. Horren froga dira Harry Truman Missouriko senatariaren deklarazioak; izan ere, 1941an honakoa esan zion *New York Times* egunkariari: “Alemania irabazten ari dela ikusiz gero, Errusiari lagundu behar genioke; eta Errusia ari bada irabazten, Alemaniari lagundu behar genioke. Modu horretara, elkar ahalik eta gehien hil dezaten utziko diegu”. Hala ere, Alemaniak irabazteak eta sobietarren baliabideak kontrolatzeko aukerak sortzen zuen beldurrak (iritzi publikoaren gero eta sektore gehiagok zuten beldur hori) eta Japoniak Pearl Harborri egindako erasoak koalizio bat sortzeko prozesua azkartu zuen. 1942an, Ardatzaren aurrean elkar babesteko adierazpen bateratu bat sinatu zuten 26 herrialdek, horien artean, Estatu Batuek, SESBek eta Txinak. Erresuma Batuak eta Estatu Batuek urte horretan bertan European bigarren fronte bat zabalduko zutela hitzeman zuten. Ez zuten bete. Bitartean, Alemaniako armadaren zatirik handiena ekialdeko frontean zebilen. 1942ko urrian, 266 dibisio alemaniar zeuden han.

1942 bukaera aldera, Wehrmachtak beste erasoaldi bat gauzatu zuen Stalingraden. 150.000 langile eta nekazarik lagundu zuten gotorlekuen erai-kuntzan, eta Alderdiko eta Komsomoleko milaka militante batu ziren Armada Gorrira.

Ordurako, sobietarren gerra-ekonomiak antolakuntza maila handia lortu zuen. 1942an, %50 baino gehiago handitu zen aurreko urteko ekoizpena. 1.300.000 langile inguru trebatu ziren ofizio berrietan eta 2.500.000 langilek baino gehiagok jaso zuten trebakuntza gehigarria. Alderdiaren oinarriko fakzioek produktibitatea handitzeko moduei buruz eztabaidatzen zuten. Landagunearen zatirik handiena etsaien esku bazegoen ere, Alderdiak nekazariak politizatzeko eta landa-ekoizpena handitzeko neurri eraginkorrak hartu zituen ekialdeko lurraldeetan.

Aberriaren Gerra Handiaren lehen aldi hori izan zen denetan zailena, eta erabakigarria izan zen Alderdi Komunistarentzat. Ezin da ahaztu ezen, nazien hasierako planak zapuztea lortu bazen ere, izugarriak izan zirela sobietarrek izan zituzten giza galerak zein lurralde- eta ekonomia-galerak. Alderdiaren gidaritzza eta antolatzaile funtzioa inoiz baino ageriagokoa izan zen. Irmotasuna, moldakortasuna eta herrialdeko baliabide guztiak *aberri sozialistaren* alde mobilizatzeko gaitasun berdingabea erakutsi zituen. Konfiantza gorakor horren adierazgarri, 1942an 1.368.000 militante berri batu zitzaizkion. Urte horren bukaerarako, bi milioi komunista baino gehiago ziren Armada Gorriaren parte (Alderdiko kide guztien %54,3). Alderdia inoiz baino indartsuago atera zen aro horretatik, zuzendaritzza politiko, militar, ekonomiko eta organizatiboan esperientzia sendoa irabazita.

Partisanoek agintari okupatzaileen neurri politiko eta ekonomikoak sabotatu zituzten, ondasunak Hitlerren Alemaniara eramatea galarazi zuten, eta etsaiaren giza baliabideak eta material belikoak suntsitzen lagundu zuten


STALINGRADETIK BERLINERA

Industriako emaitza arrakastatsuen ondorioz, 1942an, Alemaniaren armadak Stalingradi eraso egitean, sobietarren armadak garaitu egin zuen armamentuari dagokionez. Zuzendaritzza militarrek, irmo, 330.000 nazi inguru setiatu zituen hirian, eta hori aurrekaririk gabeko arrakasta politiko eta militarra izan zen. Garaipen horrek dena aldatu zuen: Alemanian ezegonkortasuna eragin zuen, eta haren perspektibak ezkorrak izaten hasi ziren; Japoniak eta Turkiak SESBen kontrako ekintzaren bat egitea pentsatzeari utzi zioten; eta krisi politikoak izan ziren Italian, Hungarian eta Errumanian.

1943an, Alemaniak beste eraso bat gauzatu zuen, Estatu Batuek eta Erresuma Batuak ez baitzuten beste mendebaldeko fronte bat sortu, hala agindu zuten arren. Eraso hori Kurskera zuzendu zen, baina Armada Gorriak berehala geldiarazi zuen. Hauek izan ziren Volgako, Kurskeko eta beste zenbait lekutako sobietarren arrakastaren arrazoiak: barne frontearen ahalegin belikoa, Armada Gorria indartzeko eta arma modernoekin hornitzeko Alderdiak egin zuen antolaketa-lan handia eta soldadu sobietarrek arma horiek trebetasunez erabiltzen ikasi izana. Nolanahi ere, SESBen garaipen dinamika hori baldintza gehiagok ahalbidetu zuten.

Aurretiaz, Alderdiaren oinarriko fakzioak erregimentuetan soilik zeuden; une hartan, aldiz, batailoietan eta beste unitate baliokide batzuetan ere eratzen ziren. 1943ko udaberrian ezarritako neurri horrek Alderdiaren fakzioen eta Armadaren arteko loturak indartu zituen, eta, haren eraginez, tropen artean lan egiteko modu malguagoak erabiltzen hasi zen Alderdia. Stalingraden hasitako gerrako fase berrian, neurri horrek Armada Gorria eta Alderdia kohesionatzen lagundu zuen, erasoaldi garai batean.





***Aberriaren Gerra Handia bukatua zen.
Sobietar Batasunak gizateria izurri faxistatik
salbatzea lortu zuen. Munduko langileek
horrenbeste nahi zuten bakea berrezarri zuten,
baina ez zen nazioarteko iraultzarik izan***

Bestalde, fase hartan, sobietarren industriak lehen mailako borroka-ekipamenduen gero eta kantitate handiagoz hornitu zuen Armada Gorria. 1940. urtearekin alderatuta langileen heren bat gutxiago bazuen ere, Alemaniako industriak Wehrmacht faxistari baino askoz ekipo militar gehiago eman zion fronteari sobietarren armadak. Sobietarren tanke fabrikek 44.600 tanke ekoitzi zituzten bi urtean (1942 eta 1943), eta alemaniarrek, berriz, 18.200 soilik. Denbora tarte berean, sobietarren aeronautika-industriak alemaniarrenak baino 20.000 hegazkin gehiago hornitu zizkion fronteari.

Stalingradeko garaipenaren ostean, naziek okupatutako lurraldeak aske utzi zituzten pixkanaka, eta leku horietako ekonomia birgaitzeko neurriak hartu zituen KPSSk. 1943an, SESBeko Herri Komisarioen Kontseiluak eta Alderdiaren Komite Zentralak "Alemaniaren okupaziotik askatutako eremuetan ekonomia berrezartzeko premiazko neurriei buruzko erabakia" hartu zuten. Hura ezartzearen ondorioz, kalteetutako lurraldeetako etxalde kolektiboek 1.720.000 abere eta neguko laborantzarako 96.000 tona hazi jaso zituzten 1944ko urtarrilaren 1erako. Etxebizitzak, eskolak, ospitaleak eta fabrikak berreraikitzeke ere lan handia egin zen.

1944an, Alderdi Komunistak faxismoarekin bukatu eta Alemaniara heltzeko beharra azpimarratu zuen. Helburu horri eutsiz aurrera egiten hasi ziren, Wehrmachtak indar boteretsua izaten jarraitu bazuen ere. Arreta berezia eman zitzaion prentsari: 4 egunkari zentral, fronteko 19 egunkari eta armadari zegozkion 90 argitaratzen ziren. Momentu hartan, nazien porrota bistakoa zenean, mendebaldeko frontea berraktibatu zen.

Askatutako herrialdeetan oso handia izan zen sobietarren eragina. Balkanetako eta Europa ekialdeko Alderdi Komunistek harrera egin zioten Armada Gorriari, eta Hungariak, Bulgariak, Errumania eta beste herri askok nazien aurkako jarrera hartu zuten esplizituki. Sozialisten sistema ekonomikoaren abantailek, herritar sobietarren artean sustatutako balio moralek eta Alderdi Komunistaren antolakuntza-gaitasunek euren balioa erakutsi zuten.

Komite Zentralak eta Gobernuak etengabe heldu zieten gune askatuetako birgaitze ekonomikoari zegozkien arazoei. Azpiegitura-erakuntzan egindako inbertsioen %40 baino gehiago bideratu zen arazo horiek konpontzera. Askatu bezain pronto hartu ziren gune sobietar bakoitzean gerrak

eragindako kalteak konpontzeko neurriak.

Alderdiaren eta langile-herriaren arteko batasun gero eta handiagoa agerian geratu zen, beste gauza batzuen artean Alderdiko afiliazioek inoiz ez bezala egin baitzuten gora; 1944an, 1.336.350 hautagai eta 1.124.853 kide gehiago zituen. Gerran zehar batu zirenak afiliatuen ia bi heren ziren. Jakina, onartu berrien formakuntza ideologikoa eta herritarren arteko lanketa politikoa lehentasunezko lan bihurtu ziren Alderdiarentzat, baina Alderdiaren fakzioek txikitua zuten lanketa ideologikoari ematen zioten arreta. Hori dela eta, Komite Zentralak egoera hori zuzentzeko zenbait erabaki hartu zituen, eta hobekuntza kualitatibo nabarmena eragin zuten.

Funtsezko eginbehar ideologikoetako bat okupatutako guneetan faxisten eragina ezabatzea zen. Ukrainan, Bielorrusian, Besarabian eta Baltikoko herrialdeetan, nekazariei itzuli zizkieten naziek lur-jabeei itzuli zizkieten lurak. Hala ere, ukaezina da herrialde horietan bazegoela nolabaiteko nazionalismo bat. 1944ko urtarrilean, SESBeko Sobiet Gorenak, KPSSren Komite Zentralaren osoko bilkura batean hartutako erabaki batean oinarrituta, Batasuneko errepublikek kanpo-harremanen eta defentsaren arloan zituzten eskubideak zabaltzen zituen lege bat onartu zuen. Defentsarako eta Kanpo Harremanetarako Herri Komisarioak berrantolatu egin ziren, eta Batasun osokoak izatetik Herri Komisario Errepublikarrak izatera igaro ziren. Modu honetara, errepublikei baimena eman zitzaien atzerriko estatuekin harreman zuzenak izateko, haiekin akordioak sinatzeko eta unitate militarrek ezartzeko.

Gerraren azkenetan, Churchillen lehentasuna zen Berlinera iristen lehenak aliatuak izatea, eta ondoren SESB inbaditzea ere planteatu zuen. Kontrara, sobietarrak izan ziren iritsi eta faxismoa akabatu zutenak. Abuztuan, Japoniari gerra deklaratu zion SESBek, eta Mantxurian garaitu zuen. Hala, Japoniak irailean amore eman zezan lagundu zuen. *Aberriaren Gerra Handia* bukatua zen. Sobietar Batasunak gizateria izurri faxistatik salbatzea lortu zuen. Munduko langileek horrenbeste nahi zuten bakea berrezarri zuten, baina ez zen nazioarteko iraultzarik izan. ●

Argitalpena

2025EKO EKAINA

EUSKAL HERRIA

Koordinazioa,
erredakzioa
eta diseinua
**GEDAR LANGILE
KAZETA**

Web
GEDAR.EUS

Sare sozialak
TWITTER ETA
INSTAGRAM
@ARTEKA_GEDAR

Kontaktua
**HARREMANAK@
GEDAR.EUS**

Harpidetza
**GEDAR.EUS/
HARPIDETZA**

Edizioa
**ZIRRINTA
KOMUNIKAZIO
ELKARTEA**
AZPEITIA

Lege gordailua
D-00398-2021

ISSN
2792-453X

Lizentzia


Editoreen oharra: Artekako artikuluetan ageri diren
ideia, baieztapen eta ondorioak artikulua bakoitzaren
egilearenak dira.

arteka